

Tiburtzio Donearen Pestak

A person in traditional white and red attire is walking in a procession. The person is wearing a white long-sleeved shirt, white trousers, and white lace-up shoes with red laces. They are also wearing red and white striped socks. The background shows a red and green striped banner and other people in similar attire.

LEITZA

2017

AZALAREN LEHIAKETAN PARTE HARTU DUTEN KARTELAK



"Leitzako Ezpatadantzariak"
PELLO SAN MILLAN



"Pestak Dantzatzuz"
ESTHER RIAÑO ZABALETA



"Hiru Ezpatak"
LEIRE KARRERA ODRIOZOLA



"...Leitzen denetaik bai beitu!"
MIKEL TELLETXEA ZABALETA



"Nespatadantza"
ORKATZ ERVITI

Eskerrak eman parte hartu duzuen guziri eta ZORIONAK irabazle izan den ORKATZ ERVITI-ri "Neskatoa" kartelarekin.

ALKATEAREN AGURRA



Kaixo Leitzar zein bisitari:

Ongi irabazitako pesta egunak gainean ditugu dagoeneko. Pesta nagusietan, gainera, beti izaten da edozeinentzat gustukoak diren ikuskizunak, Pesta Batzordeak prestatu duen programa aberatsari esker. Beraz, gozatzeko eta ongi pasatzeko aukera izanen dugu zalantzarik gabe.

Plazaola aldizkarian alkate gisa hirugarren agurra egitea dagokit aurten. Legealdi hau aurrera doan seinale da, baina denbora ez da alperrik pasa. Udal taldetik hamaika proiektu martxan jarri ditugu, makina bat lan egin dira eta beste hainbat egiteko gogoz jarraitzen dugu. Ibilbide honetan bidelagun izan ditugun udal langileei ere, mila esker zuen pazientzia eta lan txukunarengatik!

Proiektu horietako bat gogora ekarri nahi nuke, labor bada ere: Leitzako zine zaharrak bere onenak aspaldi eman zituen eta orain, herriko bizitza sozial eta kulturala bizirik jarraitzeko, bultzatu nahi dugun Herri Aretoa gauzatzea oso garrantzitsua litzateke. Horregatik eskatu genuen herriko eragileen eta bizilagunen bultzada eta babesa. Baita jaso ere! Ez dakit azkenik proiektua burutzeko beharrezkoa dugun dirulaguntza lortuko dugun, baina argi dago saiatu faltan ez dela izanen. Datozen aste eta hilabeteetan ere asko izanen dugu esateko eta egiteko, horregatik parte hartzera gonbidatu nahi zaituztet, guztion artean guztiontzat izan ahal den proiektua gauzatu dezagun.

Aipatutako egitasmoa aurrera ateratzeko, beste askotan bezala, denon ekarpena eta auzolana ezinbestekoa da, gure herriko iraganak erakutsi izan digun moduan. Horregatik, aurreko urteen gisara, gure herriaren alde hainbat lanetan borondatez aritzen zareten guztiei nire eskerrik beroenak. Zuek mantentzen duzue Leitza bizi-bizirik, bejondeizuela!

Zoritxarrez urtero ohartarazi behar dugun beste gauza bat ekarri nahiko nuke gogora, pestetan ere denok askatasunez disfrutatzeke dugun eskubidea. Errespetuz jokatzeko ezinbestekoa da eta argi utzi nahi dut Leitzan ere ez ditugula eraso sexistak onartuko.

Eskubideez ari garela, norbanakoek eskubideak ditugun bezala, Herri moduan ditugun eskubi-deak ere ezin ahaztu. Bide luzea geratzen da aurretik, baina gure esku dagoena ere egiten jarraituko dugu Euskal Herri gisa dugun proiektu ilusionagarrian. Txikitasunetik, egunerokotasunetik, gure ekarpena egiten jarraituko dugu, abestiak dioen moduan, helburua argi dugulako "jende zoriontsua herri libre batean, herri libre batean!".

**Mikel Zabaleta,
Leitzako alkatea.**



Leitzako Udala



Abuztuak 5

larunbata

REPARTO EUNE

14:00 Eskalarien bazkaria Aurreran.

16:00 Auzoz auzo, PLAZAOLA
aldizkariaren banaketa; trikitilari,
txistulari, akordeolari eta gaiteroen
laguntzaz.



Abuztuak 6

igandea

UMEEN EUNE

- 09:00** Diana txistularikin.
- 10:00** Korporazio txikiak udal ordezkariekin gosalduko dute.
- 10:30** Gurpildun zezenen entzierroa.
- Ondoren** Aurrerako pilota eskolako gazteak arituko dira plazan.
- 11:30** Umeen txupinazoa.
- 11:30-13:30** Puzgarriak eta jokoak.
- 16:00-18:00** Puzgarriak eta jokoak.
- 18:30** Aurrerako dantzari ttikien ikuskizuna eta umeen ingurutxo IREKIA plazan.
- 20:00** Buruhaundiak aterako dira.
- 20:00-00:00** Joxe Mendizabal.



Abuztuak 10

Osteguna

PESTA BEZPERA

11:30 Kuadrillen arteko herri kirolak plazan.

13:00 Elkartasun manifa.

13:30 Jubilatuen bazkaria.

14:00 Herri bazkaria karrapen, musikaz alaiturik.

18:00 TXUPINAZOA eta Plazaola Aldizkariko azalaren egileari sari ematea.

Ondoren Incansables txaranga, txistulariak, erraldoiak, gaiteroak eta buruhaundiak herrian barrena kalejiran.

Ondoren Zuzeneko musika emanaldia Aurrerako atarian.

21:30 Suzko zezena.

23:00 Tximeleta taldea plazan.

Ondoren DJ plazako txoznan.

01:00 Incansables Txarangaren erronda.



Abuztuak 11

Ostirala

TIBURTZIO DONERAREN EGUNA

- 08:00** Diana txistulariekin.
- 09:00** Entzierroa eta behiak plazan.
- 10:30** Hameiketako irekia karrapean.
- 12:00** Aurrera dantza taldeko EZPATADANTZARIAK plazan.
- Ondoren** Afizionatuen arteko pilota partidak plazan.
- 13:00** Aurreratik Incansables txaranga aterako da.
- 17:00** Leitzeko Bertso Eskolako Bersolarik Aurreran.
- 18:00** Zezenak plazan.
- 19:00** **Herri kirolak plazan**
JON REKONDO /
RUBEN SARALEGI
AITZOL ATUTXA /
UGAITZ MUGERTZA
ENRIKE BILDARRAZ (81urte) /
PATXI ASTIBIA (74urte)
Harria jasotzen
INAXIO PERURENA
- Ondoren** Goxokiak banatuko dira.
- 19:30** Incansables txaranga eta buruhaundiak.
- 21:00** Leitzeko ingurutxoa nahi duen guztiarentzat.
- Ondoren** Suzko zezena.
- 23:00** Laiotz.
- 01:00** Incansables txarangaren erronda.





Abuztuak 12

Iarunbata

PESTA BIARRENA

08:00 Diana txistulariekin.

09:00 Entzierroa eta behiak plazan.

09:00 Zumba.

Ondoren Gazte gosaria.

11:00 Gazte gimkana plazan.

11:30 Txoro-txaranga.

13:00 Aurreratik Incansables txaranga aterako da.

14:30 Bazkaria karrapen.

Ondoren Mahai jokuak.

17:00 Zezenak plazan.

18:00 Gazte txupinazoa eta kalejira errebeindikatiboa iruindarock elektro txarangarekin.

19:00 Aurrerako dantzarien emanaldia plazan.

Ondoren Goxokiak banatuko dira.

20:30 Incansables txaranga eta buruhaundiak Aurreratik aterako dira.

21:30 Suzko zezena.

23:30 Niña Coyote eta Chico Tornado.
La Mala Pecora.

Ondoren DJ plazako txoznan.

01:00 Incansables txarangaren erronda.

02:00 Kontzertue Atekabeltzen.

03:00 Leitzeko ingurutxoa nahi duen guztiarentzat.

Abuztuak 13

igandea

PESTA HIRUGARRENA

- 08:00** Diana txistulariekin.
- 09:00** Entzierroa eta behiak plazan.
- 11:30** Esku pilota partida bertsokatuak plazan.
- Ondoren** Umeentzako aparra plazan.
- 12:00** Paella lehiaketa.
- 13:00** Incansables txarangaren erronda.
- 17:00** Zezenak plazan.
- 18:00** Moixiganguers Igoaladako Castellerrak.
- Ondoren** Goxokiak banatuko dira.
- 19:00** Aspeko pilota partida profesionalak Amazabal pilotalekuan.
- 19:30** Incansables txaranga eta buruhaundiak Aurreratik aterako dira.
- 20:00** Rock Klean.
- 21:30** Suzko zezena.
- 23:00** Oihan Vega.
- 01:00** Incansables txaranga gaueko erronda egitera aterako da.





Abuztuak 14 astelehena

PESTA LAUGARRENA

- 08:00** Diana txistulariekin.
- 09:00** Entzierroa eta behiak plazan.
- 12:00** Bertsolariak plazan.
- Iker Zubeldia
 - Nerea Ibarzabal
 - Unai Agirre
 - Joanes Illarregi
 - Ander Fuentes "Itturri"
 - Iñigo Gorostazu

Ondoren Txakoli dastaketa karrapen.

13:00 Incansables txaranga
Karrapen.

17:00 Aurrerako atarin musika
emanaldia.

18:00 Dirt Jump bizikleta salto
ikuskizuna.

Ondoren Goxokiak banatuko dira.

Ondoren Incansables txaranga eta
buruhaundiak.

21:30 Suzko zezena.

22:00 Herri aparie plazan.
Apalondorea Incansables
Txarangak alaiturik.

02:00 Zezenak plazan.



Abuztuak 15 asteartea

- 08:00** Diana txistulariekin.
09:00 Entzierroa eta behiak plazan.
12:00 Herri kirolak plazan.

HARRIA:

JOSETXO URRUTIA /
JOKIN EIZMENDI

IBAN GALARRAGA /
IMANOL ILLARRAMENDI

TXINGA: SANTA SOUZA eta
MIGEL ANJEL SUKUNTZA

- 13:00** Incansables txarangaren
erronda.
14:30 Aurrerako bazkideen bazkaria
elkartean.
18:00 Helduen entzierroa eta
ondoren zezenak plazan.
19:00 Helduen ingurutxoak plazan.
Ondoren Goxokiak banatuko dira.
20:00 Ortzadar Taldea.
22:00 Suzko zezena.
23:00 Txamukos mariatxia plazan.
Ondoren "Pobredemie" Incansables
txarangarekin.



Sábado, 5 de Agosto

DIA DEL REPARTO

14:00 Comida en el Aurrera.

16:00 Reparto.

Domingo, 6 de Agosto

DIA DEL NIÑ@

09:00 Diana

10:00 Almuerzo de la corporación txiki.

10:30 Encierro con toros con ruedas.

Después Partido de pelota en la plaza.

11:30-13:30 Inchables y juegos.

11:45 CHUPINAZO.

16:00-18:00 Inchables y juegos.

18:30 Dantzaris txikis del Aurrera e Ingurutxo infantil.

20:00 Cabezudos.

20:00-00:00 Actuación de Joxe Mendizabal.

Viernes, 11 de Agosto

DIA DE SAN TIBURTZIO

08:00 Diana.

09:00 Encierro y vacas.

10:30 Almuerzo en la plaza.

12:00 Ezpatadantza.

Después, Partidos de pelota de aficionados.

13:00 Charanga Incansables.

17:00 Bertsolaris de la escuela de Leitza en el Aurrera.

18:00 Toros.

19:00 Deporte Rural (Aizkolaris)

Después Reparto de caramelos.

19:30 Charanga Incansables y cabezudos.

21:00 Ingurutxo.

Después, Toro de fuego.

23:00 Laiotz.

01:00 Ronda de la charanga Incansables.

Jueves, 10 de Agosto

VISPERA DE FIESTA

11:30 Herri kirolak entre cuadrillas.

13:00 Manifestación.

13:30 Comida de los jubilad@s.

14:00 Comida popular en el karrape.

18:00 CHUPINAZO.

Después Kalejira con charanga, txistularis, gaiteros, gigantes y cabezudos.

Después Música en directo en el Aurrera.

21:30 Toro de fuego.

23:00 Actuación de Tximeleta.

Después, DJ en la txozna de la plaza.

01:00 Ronda de la charanga Incansables.

Sábado, 12 de Agosto

DIA DE LOS JOVENES

08:00 Diana.

09:00 Encierro y vacas.

09:00 Zumba

Después Almuerzo.

11:00 Gimkana.

11:30 Txoro-Txaranga.

13:00 Charanga Incansables.

14:30 Comida en el karrape.

Después Juegos de mesa.

17:00 Toros.

18:00 Txupinazo de los jóvenes y después kalejira reivindicativa.

19:00 Actuación de los dantzaris del Aurrera.

01:00 Ronda de la charanga Incansables.

- Después,** Reparto de caramelos.
20:30 Charanga Incansables y cabezudos.
21:30 Toro de fuego.
23:30 Conciertos en la plaza.
Después DJ en la txozna de la plaza.
02:00 Concierto en el gaztetxe.
03:00 Ingurutxo abierto.

Domingo, 13 de Agosto

- 08:00** Diana.
09:00 Encierro y vacas.
11:30 Partido de pelota con música en directo.
Después Espuma en la plaza.
12:00 Concurso de paellas.
13:00 Charanga Incansables.
17:00 Toros.
18:00 Castellars de Igualada.
Después Reparto de caramelos.
19:00 Partidos de pelota profesionales en el frontón Amazabal.
19:30 Charanga Incansables y cabezudos.
20:00 Rock Kalean.
21:30 Toro de fuego.
23:00 Oihan Vega.
01:00 Ronda de la charanga Incansables.

Lunes, 14 de Agosto

- 08:00** Diana.
09:00 Encierro y vacas.
12:00 Bersolaris en la plaza.
Después Degustación de txakolí.
13:00 Charanga Incansables.
17:00 Música en directo en el Aurrera.
18:00 Dirt Jump, saltos de bici.
Después, Reparto de caramelos.
Después Charanga Incansables y cabezudos.
21:30 Toro de fuego.
22:00 Cena popular en la plaza.
01:00 Charanga Incansables.
02:00 Toros.

Martes, 15 de Agosto

- 08:00** Diana.
09:00 Encierro y vacas.
12:00 Deporte Rural (levantamiento de piedra y chingas).
13:00 Charanga Incansables.
14:30 Comida de I@s soci@s del Aurrera.
18:00 Encierro y toros.
19:00 Ingurutxoa en la plaza.
Después Reparto de caramelos.
20:00 Actuación de Ortzadar.
22:00 Toro de fuego.
23:00 Mariachi Txamukos.
Después, "pobredem" con la charanga Incansables.



Oharrak

- 1 UDALAK ez du ZEZENETAN gerta daitezkeen istripuen erantzunkizunik hartzen.
- 2 Egitaraua BORONDATEAREN truke banatuko da. Udaletxean eta liburudendetan salgai izanen da reparto eguna eta gero.
- 3 ZEZENETAN dabiltzenei eskapabidea errezagoa egiteko, barreren gainean inor ez esertzea eskatzen da.
- 4 16 urtez azpikoek debekatua dute zezenetan ateratzea.
- 5 Arratsaldeko zezenen saioaren ondoren eta musika taldeak beren lana behar bezala burutzeko, OHOLTZA libre utzi.
- 6 Zezen suzkoan gerta daitezkeen erreketa edo bestelakoen kargu ez gara egiten.
- 7 Paella lehiaketarako oharrak:
 - Norberak bere sua eraman beharko du sukaldatzeko. Horretarako osagaiak ere norberak eraman beharko ditu.
 - Epai mahiak hartuko du erabakia.
 - Ondoren, nahi duenak bertan bazkaltzeko aukera izanen du. Mahiak eta aulkiak bertan izanen dira.
- 8 Egitarauetako ekitaldi guztiak ez ditu Udalak bere gain hartzen. Hauek jende askoren BORONDATEZKO lanari esker lortu dira.

Plazaola aldizkariaren antolatzaileen oharrak

- Plazaola Aldizkariaren antolatzaileek (Aurrera Kirol Elkarteak) ez dute zertan ados egon behar bertan argitaratzen diren iritzi ezberdinetako idatziekin.
- Lanak bidaltzen dituztenek beren izena jakinarazi behar die aldizkariaren antolatzaileari, sor daitezkeen arazo legalaz idazkien egileen arantzunkizuna izanen delarik.
- Gure eskerrik zintzoenak aldizkari hau osatzeko beren lanekin lagundu duten idazle/egile guztiei, azalaren lehiaketan parte hartu dutenei eta baita ere argazkiak utzi dizkiguten Luze, Juan Mari Soro, eta Karmele Agirrerri. BEJONDEIZUELA denari!!

PLAZAOLA - LEITZAKO ALDIZKARIA




39. ZENBAKIA



Gora San-
tiburtzio!

"San Tiburtzioko Dantzariak" **AROA AGIRRE** eta **MADDI ITURBE**
ZORIONAK IRABAZLEEI



"Pitxi"
JUNE LAZKANO CANFLANCA



"Gora Santiburtzinoa"
LEIRE CESTAU



"Buruandiekin jolasean"
EIDER GIL eta OLAZ CESTAU




"Erraldoiak dantzan"
ARIANE OTERMIN



"Pesta ikaragarriak"
BEÑAT eta ENAITZ



"Euskal Herria"
PEIO AGIRRE AGIRRE
MIKEL PORTU
BARANIGA-REMENTERIA



"Festa koloreak"
MAIDER GOMEZ



"Dena pestara"
PAULE AGIRRE AGIRRE



"Ikurrina barruan"
AIMAR AZPIROTZ ERBITI



"Gora San Tiburtzio"
YURAK CABASCANGO
eta **MADDI SARALEGI**



"2017KO PESTAK"
LIHER FERNANDEZ ZUBELDIA

JATORRIAK AHAZTU GABE

1)

*Urteroko asmotan
lerro hauen bidez
Aurrera elkarte
heldu da esanez
bazkide guztieri
benetan bihotzez
eskerrik beroenak
gustora emanaz*

2)

*Leitzako herriaren
izena zabalduz
urteroko ekintzak
dotore ospatuz
talde ugari daude
guztia pentsatuz
jarrai dezagun berdin
geroa aurreratuz*

3)

*Aurrerako taldeak
dira ugariak
antolatutakoak
guztiz nabariak
ihauteri ta festa
baita dantzariak
gure bizitzarako
dira opariak*

4)

*Futbol eta Mendibil
BTT, pilota
majina bat aukera
eta kirol mota
guztiontzat eskeintza
eskura dago ta
parte hartzen jarraitu
denontzat gustoa*

5)

*Bukatzeke uean
agur bat leitzarrei
gauza bera kanpotik
heldu direnei
ume eta gazteak
neska mutikoei
festa zoriontsuak
bihotzez guztiei*

AURRERA KIROL ELKARTEA







BAIETZ 1.500!!!

Abuztuak 15 izanen da sinatzeko azken eguna.
Ez dezazula abestu "gaixoa ni" sinatu ez duzulako.
Eman azken bultzada!

HERRI ARETOAREN ALDE SINATU

- Astiz
- Maimur
- Ogiberri
- Zortziko
- Atsedeen-Gozo
- Igerilekua
- Udaletxea
- Osasun Etxea



"Baietz 1.500 sinadura"

ATERALDI ETA IXTORIK

NOOO!!!

Aurten dira ehun urte Leitzeko kontsejue berriturik. Obretan ari ziren bitartean Gazpillon yarri zuten kartzela. Kartzela yarri zuten baina dantzarako lekurik ez. Plaza dena obretako materialez betea zegoen eta igandeetan dantzan ezin ibili.

Ordun gazteek Plaza Zaharren yarri zuten soñue. Igande atsalde hartan eguraldia ere ederra zen eta gustora zebiltzen dantzan, tarteka irrintzi batzuk eginez. Baina ez denbora askorako. Laister bialdu zuen alkateak albientea dantza galaztea.

Gero gabez alkatearen etxe atarin gazteek sekuleko oihuak egin zituzten alkatearen kontra: Alkate ezinsopritue, alkate zizirikue, alkate gosepasatu irispobea, alkate zepel begigorrie, alkate makartzu kakontzie, alkate gaintxuri barrenbeltxa, alkate harroputz zoldazue, alkate herritxupatzallea, alkate hezurbeltza...

Hori zelata hogeita hiru lagun giltzaperatu zituzten Gazpilloko kartzelan. Gordazibilek mehatxu izugarrik egin zizkieten giltzaperatuei : Bostna mille peztako multe izanen zutela (pentsatu, Plazaolako trenbidea egiten aritu zirenak egunean bi pezta irabazten zutela) eta Mahongo kartzelara eramane zituztela sei urtetarako. Eta hori ez gertatzeko bide bakarra zegoela: Alkatearen aurrera yoan eta barkamena eskatu.

Hala denei eskuak lotu eta eramane zituzten alkatearen aurrera. Pello Inaziobarunena ziin aurren.

Gordazibilek: ¿Le piden perdón al alcalde?

Pello Inaziobarunenak: Nooo!!!

Alkateak ikusi zuen gazteak gogor zeudela eta gainera herrin marmari txarrak zebiltzela bere kontra eta eskuburdinak kendu eta libre utzi zituzten.

HIRU MANDO OSTU ETA BESTEAK BAINO LEHENAGO LIZENTZIATU

Gerrondoan herri askotan egon ziren soldaduk. Leitzen ere bai. Koartelak beren zaldi eta mando izaten zituzten. Garai hartan bazen yendea zazpi urte soldaduskan egin zituena.

Leitzar bat Elizondon zegoen soldadu. Koarteleko ekullun "cuadran" aritzen zen abereak zaintzen. Diru haundirik ere ez zuen poltsarako eta zerbait ere nahi. Hala, hiru mando ostu koartelek eta

hango nekazari bati saldu zizkion. Sekuleko ixkanbilla sortu zen koartelen eta hasi ziren abereen bille. Leitzar honek igarri zion eroriko zela eta koartelek alde egin zuen eta etxera etorri zen, Leitzera. Gero goardazibilak atxilotzera yoan ziren bere etxera. Atzeko leihotik atera eta saiatu zen ihes egiten. Baina goardazibilak etxea inguratuta zuten eta hasi ziren tiroka eta harrapatu zuten. Mahongo kartzelara eramane zuten hiru urtetarako.

Kartzelako aldia bete eta etorri zen etxera eta bere lagunek oraindik soldaduskan segitzen zuten!

HITZ ANTZU ASKO

Aison bertsolariak ziren, Basarri eta beste batzuk. Joxemiel, kontu kontatzaile ona eta bertsoatan ere pixko bat aritzen zena, yoan zen Leitzetik bertsoak entzutera. Aurrena plazan aritu ziren eta gero tabernan. Tabernako saioan Joxemiel ere aritu zen puntutan bertsolari horikin eta bere idurirako betelan asko egiten zuten famako bertsolarik. Honontzen hala zion:

– Basarrik eta horik hitz antzu asko daukea.

SATORRAK SUKALDEKO ELTZEK IRAULTZEN

Etxe baten sukaldeko solairue zaharra zen eta dena zirrikituz betea. Zirrikituetatik ikusten ziren ekulluko behiak azmarrean nola ari ziren. Beste etxe baten lurraren gainean egindako sukaldea zuten. Solairurik gabea.

Lurraren gaineko sukaldekoak esan zion besteari:

– Sukaldea garbitzen ez omen duzue lanik.

Eta zirrikituak zituen sukaldekoak erantzun zion:

– Zuen sukalden satorrak iraultzen omen dazkitzue eltzek.

ARDANGAXIK

Lehenago yendeak sendabelar asko ezagutzen zituen. Intsus loreak enplastoia egiteko, larremillu salda tripetatik gaizki zegoenarentzat, ebaki belarra ebakia sendatzeko eta abar. Eta baita ere ezagutzen zituzten yateko belarrak. Adibidez ardangaxik. Ardangaxik belatsoatan eta estartetan izaten dira. Gazi-gaziak dira.



ILUSTRAZIOA: ITZIAR FAGOAGA IRURTIA
TESTUA: GARBIÑE SAGASTIBELTZA LIZARRAGA

*Aspaldiko garaietan,
urrutiko erresumetan
sortu ziren,
printze eta printzesak,
dotore ta ausartak,
amaorde eta sorginak,
krudel ta itsusi amorratuak,
dragoiak eta piztiak,
beldugarri ta bihotz gabeak,
pirata eta zaldun beltzak,
errebelde ta legez kanpokoak,
maitagarri eta aztiak, berriz,
ipuin batetik bestera saltoka,
ezinezkoa zena eskura jarritz,
barita, kriseilu edo edabe magikoen bidez...
Zaharkituriko kontuak, paperezko pertsonaiak,
aurreritiz jantziak,...*

*Nik nahiago, ba, bertsioak egitea,
ta barrenean dudan printzesa ixila askatuz
sorgin dotorea bilakatu zait,
ta berak aukeratutako pirata ausartarekin
Aladinoren alfonbra hegalaria konpartituz,
urrutiko lurralde horietatik ihesi,
gugan sortzen den magiaren indarrez,
bidaiatuz, bizituz, ... erresuma askearen bila.
Zuk ere aukaratu zenezake zure ipuina,
bat berridatzi edota idatzi berri bat!
Mendez mende menderatu gaituzten
printze bihotz gabe ta printzesa krudelak
paretik astinduz...*

*ahaztu inposatutako argumentuak,
narrazio xelege ta bukaera faltsuak,
eman indarra
zure irudimenari,
mugarik gabe,
itxiturak irekiz, atakak zabalduz,...*

*Zure ipuinaren azken puntua
Beti jarraia izan dedila!*

BERASTEGIKO INTZA BASERRIAN MARITXU HUICIK KANTATUAK

Beti egiten da xarmagarri, kantari itsua, Homeroz gerozko usarioagatik gutxienez. Eta zer esanik ez emakumea denean. Horrexegatik hutsagatik, erlikia da bertso sail hau neretzako. Ikusi egin behar zuretzako? **Berastegiko Intza baserrian**, 64 urteko **Maritxo Uitz Apezetxea**, sortzez **Goizuetako Marijoangoneko alaba** denari jasoak dira, 1997ko garagarriaren 15ean, bederatzi puntuko bertso ederrok.

Eta hara nola argitzen duen Maritxok berak, bertsoak ikasi zitueneko iturria eta giroa:

“Gure atta zenak zekizkin bertso oik, ta nik ari ikasik izaten dittut. Julian Uizi zun izena, Main-geneko semea; izeba Malen oaindik antxe bizi da, gure atta zenan arreba, laroita amaikagarren urtera dijoana. Gu re antxe yayo ta azik ga denak. Gure atta zenak, oloko bertso zarrak, ikaragarri zekizkin, enkanbio beste anaia zena Korneliok etzun bate afizioik izaten bertsoakoto.

Bertso oik aittuta jendia arrituta gelditzen da. Nik beiñ edo beste kantatu dittut, San Isidro egunian da ola, ta emen iñork ez dakizkin bertsoak dira. Gure atta zenak eztakit nondik ikasik izango zittun?”

Intzako Maritxoren aita zena neronek ere ezagutu nuen Goizuetan, aitona luzanga azkar flakosta bat; eta hura ere itsua izaki, gogoan daukat, Zubiaunditik honuntz asto baten arrimoan nola etortzen zen Illagorriren bordatik herrira, gu, oraindik mutiko kakazu, eskolatik atera eta errekreoan jostaka genbiltzala. Eta auskalo zergatik, badakit gainera **“Mendiburu”** deitzen ziotela izengoitiz Goizuetan. Ez hori bakarra, hara nola aipatzen duen **Goizue-**



Maritxo Huici etxeko atarian (Maite Lecea, 2017-6-20)

tatik Leitzarako kamioa egiterakoan, **Domardolako harrian** ari zirela, Manuel izeneko oiartuar batek 1915 aldean ateratako bertsoetan (ikus *Goizueta eta Aranoko hizkerak* liburuko 202 orrian) :

*Goizuetako semea, Julian Huizi
Gizajuak eztu ez gaizkirik merezi
Lekurik txarrenera dijua lenbizi
Amak arkaitzerako obeik ezin azi*



Julian ezkondu zenekoa (1931)

Eta honatx, gero alaba Maritxok aita itsuari ikasi zizkion bertsoak:

1

*Askotan aditzen det besteren pregoya.
Onekin berritzen det daukadan naya:
pena oyek kentzeko falta ezkongaya,
saiatu bearra det, orain da garaya.
eta nai det saya,
badaukat sasoya,
baita arrazoya,
artzeko garaya
merezitua nago txit fanfarroya.(bis)*

2

*Apiziyo aundiya daukat galaietan.
Gustatutzen zaizkidan ezkogayetan.
Astian segitzen det, geiyago jaiyetan.
Nere begiak argi dabilta oyetan:
billera tokitan,
festa-perietan,
erromerietan,
al dan guztietan,
zein gustatuko ote dan nitaz aietan?(bis)*

3

*Mutill bat aukeratu galan galakua
Neonek pretenditu nik alakua.
Al baldin badet oso azal zurikua,
alde guztietara nai goienekua:
gazte sasoikua,
tatzik gabekua,
gorputz onekua,
aldamenekua.
Au ezin badin badet bestelakua. (bis)*

4

*Sasoyen nago nere estadia artzeko
baita gañera kanta oyek jartzeko.
Gogorik ez egiten, ez moja sartzeko.
gustokorik ez dator berriz ezkontzeko
pena neretzako
triste orrentzako
dator sofritzeko
ta erne jartzeko
azkenian bildurra neskazartzeko.(bis)*

5

*Soñeko bat badaukat ederki josita
Mutillak billatzeko ura jantzita
Guapuak bear ditut, kaskarrak utzita,
Izan ere ez nago, txarra merezita.
Bestek erakutsita:
daukat ikasita
laxter da bixita
ez nago etsita
zaletuko dirade ni ikusita.(bis)*

6

*Izen da apellido, naiz **Ines Beloki**
Lanian dakidana guztiz egoki.
Faltak zuzendutzeko goizian goiz jeki.
Al ditezkie lanak ere egin aurki.
puntaran badakit;
koziñan ederki,
lanian galanki,
egon gabe, noski.
Nere senarra ezta izanen gaizki. (bis)*

7

*Mutill asko ditugu gaur Ameriketean,
eta geiago berriz soldadu kintan.
Gaztientzat lan ona jarri zuten ontan
Garaian sobratzeko bear dana bertan.
onelako plantan,
gu majuen faltan,
estutasunetan
paseatzen gaztetan,
ala bearko degu geren ustetan. (bis)*

8

*Nere ezkontzak baditu amaika aitamen,
Zerez lenao gauz ortan jardunak gauden.
Guregatik jendiak zerbait esanarren,
Orra esperantzetan orain nola gauden:
Ni pronto nau emen
etorri lenbailen
.....
.....
ezkonduta gustora bizi gaitzen. (bis)*

9

*Orratx bestro berriak jarri guztientzat
Gaizki daudenikan iruditzen etzait
Denbora pasatzeko, zar da gaztientzat,
Nere kontuak jakin nai dituanentzat
Txit ondo deritzat,
ikastia beintzat,
zer poza neretzat,
gazte askorentzat,
emen saltzeko daude nai duanentzat. (bis)*

Guzitara hamabi bertso ote ziren esaten zidan Maritxok, baina ez zen gehiagotaz oroitzen. Bertso jartzailearen izena ere azaltzen da seigarren bertsoan: «*Izen da apellido, naiz **Ines Beloki***». Emakumea beraz, eta behar bada, falta diren bertsoetan ager liteke **nongoa** zen: **herriaren izena** alegia. Hala eta guzi, nere ustea duzu, ezkontzeko amorratzen dagoen neskazahar tipikoaren egoera ironizatuz gizasemereren batek paratuak direla bertsook. Topikoa nola deskribatzen duen ikustea aski. Ez baita emakumerik munduan, bere burua hola deskribatuko lukeenik. Eta hartara, **Ines Beloki** hori ere ez litzake zinezko izena. Baina auskalo? Badakizu: “*a buscarlo*”-tik omen dator.

Nik esan behar banu **Martin Motxene** zenak, izen ofizialez **Nartziso Sestorain** zenak, kantatu zizkidan “**Doña Señorita Altamirako**” goizuetar haren bertsoekin lukete zer ikusia bertsook. Ikus *Leitzako Errege Erreginak* liburuko 516-517 orrietan, eta gogoan izan Martin Motxenek orduan esandakoa: “**Lengo bertso zarrak berrittute, paperak atera zittuen saltzeko, ta len baño askoze berdegoak**”. Haiek eta hauek konparatzea aski. Kontuak hola, Martin Motxenek aipatzen zuen lehengo bertsoaldi zahar hura ez ote zen izanen Maritxok aita zenari **Goizuetako Maingene baserrian** ikasi zion hemengo bertsoaldi haxe berbera? Larri ibili. Gaia eta tratatzeko modua ere berbera baitute, nahiz Martinek kantatu bigarren bertsoaldia askoz ere pikardia haundiagokoa izan eta hizkera askoz zorrotzago eta biziagokoa.

Hogei urte pasa dira geroztik, eta hara zer esaten zidan Intzako atarian Maite Lezeak: “*Gaur 83 urte dituen arren, behin baino gehiagotan kantatzen dizkigu bertsoak amona Maritxok. Eskerrak bihotzez, eta jarraitu holaxe urte askoan amona!*”. Ezin esan nik deus hoberik.

(Osaba Batixta zenari)
PATZIKU PERURENAK

BATIXTA PERURENARI

agurre

Aurtengo otsailean Batixta Perurenak utzi gintuen. Leitzeko bertso-eskolako kideontzat herriko bertso munduko erreferentzi bakan horietako bat izan zen. Bertso-eskolako zaharrenek Tomax Barun, Manuel Lasarte, eta beste bakarren bat ezagutu giñuzen beño hauekin egoteko aukera askorik ez giñun izan. Batixtarekin ordea, askotan egon ginen. Estilo zaharreko bertsolaria zen. Garai bateko bertsolaritzaren lekuko zuzena. A ze bertso pille zeuzkan gogoan! Harrigarrie zen guretzat. Nola eduki zitezkeen sorta osoak gogoan? Zalantzarik gabe, ehundaka aldiz abestu eta errepikatuta.

Bapatean aritzeko berriz, teknika landurik ez, beño berezko grazia eta bete-beteko bertsolari sena zuen. Adi entzun, azkar erantzun eta arrazobe on batekin borobiltzen zuen. Earra!

Ohorea izan da Batixta ezagutu izana



*Jaiotetxea halaxe ziñun
hargatik ziñen "karretto"
ta bertsoz bete ziñun gurdi bat
zaletuok gozatzeko
pena galanta etzaitugula
gurekin dagoeneko
beño Batixta, jakin ezazu
erein ziñuna, tarteko
prest gaituzula bertso-gurdia
aurreraka bultzatzeko*

LEITZEKO BERTSO-ESKOLA

LEITZAKO ARTIOLA eta GOIZUETAKO ZIROLA

(Borondate oneko euskaltzainei musutruk eta asmo onez)

Nafarroako Artxibo Handian ezagutu nuen Fernando Maiora, behiala Trabukoren surrean nembilela, eta ezagutu nuen ordukotz ohartu nintzen gihar fineko gizona nuela, nahiz izakera *zakar* samarrekoa. Geroztik baditut leituak haren liburu franko, eta aztertuak ere bai, batzuk. Haietako bat *“Injurias, coplas, frases”*, erlikia askoren artean, honako perla hauxe dakarrena: *“que el dicho Garcia de Zaro hera un **menguado, ziol**, picaro, y questo lo dijo una y muchas veces (145 or., Artaxoa 1645)”*.

Ikustekoak dira *ziol* horren ganean gure euskaltzain, filologo eta etimologo eminenteeek esandakoak, eta behin eta berriz, ez buru ez buztan errepikatuak, hasi 1596ko erretra hartatik (RS.21) eta egundainokoa, ikustekoak direnez! Oroitzen gure Alfontso Irigoien filologo bizkaitar finak ateratako ondorio sekulako haietaz? Honatx :

*“Entre los refranes de Oihenart que no fueron publicados en Paris en 1657, conservados en un cuaderno manuscrito y publicados en 1967” hay uno que no ha podido ser traducido y que vamos a tratar aquí de hacerlo. Se trata del refrán incluido entre los de la Soule con el núm. 343 y repetido en el 217, el cual está leído como haur ola corola, con una nota que dice: «es incomprendible para mí: **cirola** ocurre en RS 21 y 275, traducido «**çapatero**», pero debe tratarse de otra palabra. Podría leerse corola, que tampoco da sentido».*

*“Pienso, sin embargo, que la lectura de **çirola** tendría pleno sentido, teniendo en cuenta que **haur** puede utilizarse en suletino en el sentido de **ecce** latino, tanto para el primero como para el segundo grado. Así **haur ola çirola** se traduciría por «he ahí el taller zapatero», es decir, que sería el equivalente. del conocido refrán castellano zapatero a tus zapatos”.*



Zapataria, euskaraz sekula santan “zirola” izan ez dena.

Bo, bo!!... Zorioneko *haur* hori ez bailitzake *haurra* baizen, eta *“haur ola, ziola”* erretraua, norbaiten asmazio ilun ez izatekotan, berriz, *“haur eskola, ziola”*, edo gisako zerbait genuke usuarioz, haurraren eskola, ganorabakoa, fundamenturik gabekoa, izan ohi dela, alegia; hitz batean esan: *zirola* izan ohi dela, *menguado, pusilánime* alegia; eta hurbileneko zerbait kastillanoz esatearren *“quien con crios sea cuesta, meado se levanta”* izanen litzateke, eta ironia aparte, lekutan gelditzen dira horiek, Alfontso bihotz nerekoaren *“zapatero a sus zapatos”* harengandik, lekutan gelditzen direnez!

Hona non izan zuen oker honek hasiera: *çitel çirola, noc gudura aroa? Pusilanime çapatero, ¿quién te lleva a la guerra?*”. Horra lehen okerra: *çapatero* gaizki dezifratu hori, funtsean ez baitzen *çiqatero* baizik. Eta euskaraz *zital*, jakina. Ez hori bakarrik: *zital* hori *cicatero* izateaz gainera, nola euskal hala erdal erroak, bi biak *ziqät* arabiar klasi-

koan izan bailezakete lehen iturria. Ikus googlen “cicatero” hitzaren etimologia, edo Corominasek dioena. Horra beraz, sorreran *cicatero* > *zital* begien bistakoa baino ez zena, norbaitek *zirol* > *zapatero* bihurtua. Horra, zinezko euskal usuarioan sekula santan ezagutu ez den astakeria, eminentez eminente nola dabilen. Bistakoa baita errefrau horretan, **zirola** ez dela **pusilánime** besterik.

Begira, ordea, maisuetan maisuena den Joseba

Lakarra jaunak **zirol** honi buruz esandakoak, Euskaltzaindia *Euskararen Lekukoak 19* liburua, 1996ko azken edizio kritikoan, 222 eta 256 orrietan:

Ez hori bakarrik: *pusilánime* ordez *zapatero* bihurtzean **zirol**, hurrena *çiicatero* baino ez den **zital** hitzari ere sekulan bereak izan ez dituen esanahiak leporatu baitizkie gure hiztegitik txit gorenek. Ikus bestetan beste, Orotariko Euskal Hiztegian: “*zitel* (A, que cita RS). *Cobarde, apocado*”. Horra berez

REFRANES Y SENTENCIAS (1596)

<p>20. ¹Celan ²vaysta ³ojala ⁴alacoa ⁵mendela.</p>	<p>¹Qual es el ²pañõ, ³tal es el ⁴orillo.</p>
<p>21. ¹Zitel ²zirola, ³noc ⁴gudura ⁵arõa? ↑</p>	<p>¹Pusilánime ²zapatero ¿quién te lle- ³va a la ⁴guerra?</p>
<p>22. ¹Çaarrago, ²ycascurago.</p>	<p>Quáto ¹más ²viejo, más ³deseoso [de saber.</p>
<p>23. ¹Cematuoc ²oguien ³jala.</p>	<p>Los ¹amenaçados ²comedores ³de ⁴pã.</p>
<p>24. ¹Ayta ²çarra ³ta ⁴behse ⁵etena ⁶ezta ⁷guerena.</p>	<p>¹Padre ²viejo y ³abarca ⁴rota ⁵no es ⁶deshonra.</p>
<p>25. ¹Arloteari ²emayoc ³ar[r]jauça, ⁴escatucõ ⁵dyc zoça.</p>	<p>Al ¹mendigo ²dale el ³buenõ, ⁴pedirte ⁵ha el ⁶palillo ⁷escarbador.</p>
<p>26. ¹Agura ²honari, ³ez ⁴ateac ⁵yssi.</p>	<p>Al ¹buen ²viejo, ³no ⁴cierres ⁵puertas.</p>

20. *celan* / *alacoa*: bata -n-rekin eta bestea gabe; cf. 35 *celangoa* / *alangoa* eta PT 281ko iruzkina.
vaysta: lk. 5. kap. II § 2.6. BZ-eko gainerako adibideekin (cf. PT 46); noizbait orokorra izandako jostera baten mendebaleko hondarra. Cf. 35 eta 478 (hau txistukari gabe).

⇒ 21. *zitel zirola*: adjetiboa izenaren aurretik (cf. 37 *caden çarriac*); adibide gehiagotarako eta iruzkinerako ikus PT 458.



Etxeko andreak ahuntz jezten, Noruegan.

zirol hitzari dagokion esanahia, ez buru ez buztan, **zital** hitzari atxekia. Horra jainkokeria absurdo bategatik inork aintzat hartu nahi ez didan egia fina.

Baina gizajo ziorol honen ikerlanok deustarako balio dutela uste baduzu, irakur faborez *Dakiguna Ikasten* liburuko 108-109 orrietan neronek behiala esandako kontuok, hasieran aipatu Fernando Maioraren 1645eko erlikia horren (**menguado** berdin **zirol**) lagungarri:

“IROLA EGIN: denbora baino lehen galdu umea ardiak (edo beste edozein aziendak). **IROLIÑAK** (irol+eginak) **IROLINDUAK:** Umea galdutako ardiak. Bisuts urtean asko izaten omen dira, hala zioten garai bateko artzainek. Baita **xirol, xirolka, xioldu, zioldu...** eta gisakoak ere, alde aldera **ahul, noño, xepel** zentzuan, hor dabilta bertara samar, nola fonetikan hala semantikan. Bai baitakit aurren zeta hori (z-) geroztik galdua dutela hasieran aipatu irol, irolin, irolindu, eta abarrek.

Usario zahar horretatik sortua behar du, inondik

ere, Leitzako **artiola** hitzak ere: ardi + irola. Ikus Mikel Olanoren **Aio Leitze!** hiztegian. Izan ere, orain gutxi arte, urruz edo ahariko, bildots guzia uzten baitzen aurrerako; ez da batere harritzeko, beraz, jezten ziren ardi bakarrak: ardi irolak (< **artiolak**) izatea; zer edo zerengatik umea galdutako ardiak, alegia”.

Baina, nork entenditu niri, neure haragitan bizitako egia enpiriko ditudanok, gaurko doktore eskuxurion artean? Dena dela, norbaitek nahi izan ezker, prest nengoke ahoz hobeki esplikatzen. Eta neurereokin ez bazara fio, egin galde Goizuetako maisu maistra xaharrei, **zirol, zirolka, zioldu** horien berri.

FRAIXKU SUMAIUKA

JOANA ZIGANDA OLANOREKIN KONTU-KONTARI



Joana Ziganda Olano, 2017ko apirilean.

2017ko bertsolari-txapelketan inguru honetatik ateratako bertsolari berriak aurkeztu zaizkigu. Hortxe zen Joanes Illarregi leizarra adibidez, edo Oskozko Joana Ziganda, lan txukun askoa eginez. Azken urteotan Leizatik bertsolari mordoxka oholtzaratu da baina gaztetxoen eskolarteko sariketarik aparte ez da emakumezkorik aurkeztu izan. Joana leitzako kastako emakumezko bertsolaria izaki berarekin hizketalditxo bat egin nahi izan dugu.

Nor da Joana Ziganda Olano?

35 urte ditut, lanbidez haur hezkuntzako irakaslea. Oskoztarra naiz, baina ama Leizarra dut, Minttorla baserrikoa; familia handia dut Leitzen. Nahi bezainbeste ez etorri arren bertako familiarenganako, Minttorlarenganako eta herriarenganako lotura handia sentitzen dut. Bertsozalea naiz aspalditik baina bertsotan hasiberrizat dut nire burua, asko dut ikasteko orandik eta gogoz nago horretarako.

Nola bertsozaletu ziñen?

Nire etxean txiki txikia nintzenetik entzuten genituen bertsoak eta bertsolarien istorioak. Gurasoek ez zuten kantatzen, baina Hitzetik Hortzera saioa hasi zenetik etxean asteroko zita izaten genuen telebistaren aurrean. Gurasoek beti miresmen handiarekin hitz egiten zuten bertsolarien inguruan, zuten ausardiarekin eta bertsoa egiteak duen balioaz. Minttorlako familian ere askok dute zaletasuna, eta Asintxio, nire osaba, zaletasuna izateaz gain ederki aritzen zen bertsotan.

Gaztea nintzela, parrandan jolasean puntuka saiatzen hasi nintzen. Zenbat saio egin izan ditudan ordu txikitik "Torren"!!!!

Behin, Oskar Estangarekin bertsolaritza ikastaro bat egiteko aukera izan nuen, eta honetan, bat batean, nire frogatxoak egin nituen, koplaka, zortziko txikian...

30 urte inguru nituela, Larraungo helduen bertso eskolan sartu, bertso giroan murgildu, bat batean jende aurrean hasi eta bertsoarekin guztiz engantxatuta gelditu nintzen.

Aurten Nafarroako bertsolari txapelketan parte hartu duzu. Nolako esperientzia izan da?

Oso esperientzia aberasgarria izan da, ez da erraza izan, emozionalki batez ere, baina oso balorazio ona egiten dut bizitakoaz. Txapelketa aurreko kanporaketan, erronka personal gisa eman nuen

izena, nire burua frogan jarri eta bertso lanketan aurrera egiteko modu bat zelako.

Kanporaketa pasa eta nire burua txapelketaren barruan sentitu nuenean mila sentsazio izan nituen: harrotasuna, emozioa, poza, urduritasuna, beldurra, bertigoa... denetatik sentitu nuen. Baina behin pasata, oso balorazio ona egiten dut; asko lagundu dit nire burua ezagutzen, baloratzen, zorrotzegi ez hartzen, hazten eta batez ere bertsoan jarraitzeko gogo handitu dit.

Plazako bertso-saiorik egin al duzu?

Egia esan oso plaza gutxi egin ditut, ez naiz oso plaza handietan aritu. Gehien bat, lagun arteko saiotxoak egin ditut, bardoak, desafioak, bertso poteoak... baina saio bakoitza, xumea izan arren, handiena izango balitz bezala bizi dut, ahalik eta hobekien egiteko gogoz.

Zein bertsolari dituzu gustoko?

Gaur egun dauden bertsolari handiekin oso zaila da gutxi batzuekin gelditzea. Bertsolari "zaharretan" oso gustuko nuen Lazkao txiki, bere xumetasuna, gozotasuna eta aldi berean bizitasuna eta zirikatze-ko joera.

Ondorengo belaunaldietan bertsolari on asko izan dira, baina bat aipatzekotan Maialen Lujanbio aipatuko nuke. Bera oholtzan ateratzen hasi zenean hasi nintzen bertsoaritzaz nireago sentitzen; garai hartan oraindik gizonentzat hartzen zen oholtzan berak azaltzen zuen, bizitasuna, ausardia, ziurtasuna, indarra, ideiak, erantzunak eta jarrerak liluratu ninduen.

Azken urteetan, eta agian bertsoaritzaz munduan murgilduago nagoelako, gehien bat emakumeak bertsoaritzan egiten ari diren bidean jartzen dut begia, eta gaur egun Uxue Alberdi, Ane Labaka, Miren Amuriza, Oihana Iguaran eta beste askok ekarpen aberasgarria egiten ari dira bertsoaren munduan, jarrera, gaietan eta hauen aurrean duten begiradan.

Nola dago bertsoaritzaz zuen eskualdean? Eta emakumeen artean?

Ni mugitzen naizen inguruan bertsoaritzaz indartuz doala iruditzen zait, bertso zaletasun handia nabarmena da, jendea saioak ikustera joaten da, saio mota ezberdinak antolatzen dira, jendea dau-

den bertso eskoletara hurbiltzen da... bertsoaritzaz modan dagoela esango nuke eta hau bertsoeskolen lanaren fruitua ere bada.

Emakumeen artean, bertso zaletasuna oso handia da, baina kantuan, bat batean, inguru honetan gutxi gabilta, gai honen inguruan lan handia dugu egiteko. Egia da, belaunaldi berrien artean, gazte-txoen bertso eskoletan neska asko daudela, hori oso pozgarria da, seinale ona eta honi eusten saiatu behar gara.

Emakume gazteak bertsoan jarraitzera animatuko nituzke eta nire bizipenetan oinarrituta, emakume heldu bertsozaleak helduen bertso eskoletara hurbiltzera animatuko nituzke. Bertsoak norberari teknika eta doinu bat baino askoz gehiago eskaintzen dio, gustuko izanda gotzatzeaz gain, bertsoa egiteko gai zarela ikusteak barrua bete egiten baitizu.

Honetaz gain, bertsoa gure ahotsa entzun eta hedatzeko modu bikaina da, eta emakumeok asko dugu esateko!

Millesker, Joana, ea Leitzeko festetan ikusten zaitugun. Bukatzeko, bota zaiezu agur bat leitzarrei:

*Leitzen hurbil da etxafuegoa
pozten zaizkigu barrenak.
Ezpata dantza, ingurutxo
bertsolari bikainenak.
Txaranga, dantza, parranda ona
gosaria ta zezanak,
lagun giroan, kantu algara
urteroko bizipenak.
Pestak gozatu, zuenak nire
ta euskaldun guztienak.*

MIEL MARI


“LAIBIDE” IZENENKO ZERGA (1427)




Leitzako Arkiskil auzoko laiarik, dotore jantzita itxurak egiten Musungo alorrean. Ezker eskuin: Pako Olano Garagartzakoa, Pako Alkoz Martikonekoa, Joan “Sasa” sortzez Boxekaren bordakoa, eta Bernardo Zabaleta Astaitzagakoa. Egilea: Tomas Alkoz, 1973.

Umorez hasteko, hona **Areso** eta **Leitza** arteko aldeak **1427 urtean**: haiek errotarik ez, hauek bat; haiek bina zerri ezkurrerako, hauek bost seina; haiek garia eta artatxikia bi hilabeterako, hauek laurako; haiek edaririk ez, hauek zizarra edo pitarra hiru hila-beterako; eta atzeneko hau, politena: aresoarrak “*estrechament*” bizi omen zirela; leitzarrak berriz “*mezquinament*”. Zeinen gauza ederra, umorea!

Esan baita, Aresok zortzi libera eta hamar xueldo pagatzen zuela urteko zerga, eta Leitzak kasik bi halako: hamazazpi libera eta bost xueldo. Leitzan 45 etxetatik zortzi galdu zirela azken 25-30 urtetan, eta Areson berriz lau besterik ez, 25 etxetatik. Alde aldera, esan liteke orduan, **Leitzaren erdia** baino gutxi gehiago zela **Areso** 1427an. Hala ere, “**laibide**” izeneko zerga berbera pagatzen zuten biek. Honatx Aresokoa, neronek beltzez makatua:




Eratsunen, ordea, nahiz Aresoko etxekontu bera-tsua izan, hamar zerri etxe bakoitzeko, eta alea eho-tzeko errota ere bazuten. Hala eta guzi, aresoarren zerga berbera pagatzen zien errege erreginei: “*cinco sueldos fuertes et laividea*”. Hori bai, “quarter” edo ondasunen *laurdena* izeneko zerga, eratsundarrek baino zazpi xueldo gutxiago zuten aresoarrek. Honatx Eratsungoa, berdintsu:



Bukatzeko esan, **laibidea** izeneko zerga zaharra, **herrilurrak laiez lantzeko eskubide**agatik pagatzen zutela herriok. Eta lur iraultzeko gure tresna soberas-ko mitifikatua **laia** izan dela jakinik, zinez harritzekoa, oraindik inork jaso ez izana izen eder hau. Oraingoan aintzat hartuko al dit gutxienez, euskaltzain emi-nente horietakoren batek.

Baina **Beintzan**, **Labainen** eta **Saldisen** ere, halaxe berean ageri da 1427 urteko apeoetan **laibi-de** izeneko zerga. Honatx Nafarroako Artxibo Handi-tik neronek ateratako kopietatik **Markel Lizasoain** adixkide saldistarrak bere borondaterik onenaz mol-deko letretara pasa dizkidan datuetatik, ttitta batzuk, asper gaizto eginen ez duzun esperantzan:

Saldiasek 25 etxe zituen 1427an, edo hobeki esan, 23, eta “**dos Peguilaleros**”. Honatx atzeneko hitz arrotz honen faksimile puxka:



Baina zer demonio ote ziren “*peguilalero*” horiek? Honatx Jose Luis Huarte liburuzainaren laguntza digitalari esker ikasi dudana: “*Denominación bajo-medieval de los pecheros navarros cuyo patrimonio no alcanzaba la cuantía prevista para configurar la unidad fiscal del fuego o casa. Aparece también con la grafía pegullarero. Se trataba a veces de pupilos o mancebos poseedores de su “peguillar” o pegujal y asociados a un núcleo familiar por razones de parentesco o servicio doméstico. Las ordenanzas*

regias y el propio memorial del Tesorero para la recaudación del “monedaje” de la merindad de Tudela de 1353 previenen la revisión de la fortuna de los peguillareros, que en bastantes casos habían alcanzado el nivel adecuado para cotizar como un fuego, pero trataban de encubrirlo para eludir el pago de la correspondiente cuota de pecha. Esta consideración de pecheros de modesta condición, aunque no pobres oficiales, se aplicaba también a la población mora o mudéjar de la Ribera tudelana”. Horrek esan nahi du, moroak, gaur bezalaxe, orduan ere ez zirela Tuteran bakarrik bizi, Leitzako Tutere-nean ere bai, agian, edo ikus, bestetan beste, *Goi-zuetako Dokumentu Zaharrak* liburuko 42 eta 93 orrietan esaten direnak. Eta erregalo honekin ez baduzu aski, ikus, bestetan beste, *Gran Enciclopedia de Navarra* delakoan “**peguillarero**” hitza.



Ola, Ezkurreko burniola izandua, Eratsungo mugan (P.Peru, 2016)

Errota ere bazuen Saldisek 1427an, auzoko Labaien eta Beintzak ez bezala, baina azken 25-30 urtetan, bost etxe galdu omen zituen *“por mortaldat”* eta beste bi auzoherriek alerik ez. Baita etxero launa zerri ezkurretan gizendu, lau ilabeterako garia, artatxikia eta pitarra egin ere egiten omen zuten saldistarrek, eta gainera sos batzuk ateratzeko mandazain saiatu: *“a carrear carvon e mina”*.

Labaien: Saldisek bezalaxe zerga zuen: *“deven en cada un aino de pecha a los señores Rey e Reyna cada casa cinco sueldos fuertes et Laividea”*. Hemezortzi etxe, eta zergarik pagatzen ez zuen **jauntxoa**, eta etxero hirulau zerri ezkurreratzeko aukera; urte erdirako gari eta artatxikia (*pan et mjo*) eta zortzi ilabeterako pitarra (*pomada con la aguo*); eta gainera ondasun guzien laurdena: *“por quarter siete libras cinco sueldos”* paga beharra urtero.

Beintzak: jauntxoa kenduta, labaindarrek bezal bezalaxe: etxe, zerga, zerri, ezkur, behi larre... Baina bazuten auzoherri bien arteko tratua ere larreokin: *“que han ciertos ervagos ensemble los quoales tienden en cada un aino et han de provecho su part de diez y seis florines”*. Ez duzula ongi entenditu? Leitu berriz, eta halere ezin baduzu, egin galde dakienari, eta ikasi ikasten.

Bukatzeko esan **Ezkurrakoak** zirela inguru honetan erregeri zergarik pagatzen ez zioten bakarrak, eta gainera denak hidalgo: *“que todos son hijos dalguo et por esto no han cargas algunas de pecha”*. Gero *“eroak”* esanen dute!... Berritio diot: zeinen gauza ederra, umorea! Baina **10 etxe** besterik ez zuen Ezkurrak 1427an, eta hiru olajaun **Ezkurrako Jaunari** zergarik pagatzen ez ziotenak. Zein ote ziren hiru olajaun horiek: nire kontuak oker ez badabiltza **Ollingoa, Berriñas Arangoitzekoa** Urumearen sorburuan bertan, eta Basakaitzeko erreka Ezkurrekora sartzen den ondotsuan **Ola**. Horratx atzeneko honek utzi digun testigutza ederra oraindik zutik, goiko argazki ederrean.

Halere, harrigarriena, hirurehun zerri gizontzeko ezkurra izatea **Ezkurrari**: *“pazto pora engordar tre-cientos puercos”*. Gutxi goiti beheiti, 23na zerri etxero. Alde ederra, beste herriekin konparatuz. Sinale ezkurra erruz bazela, herriaren izenak berak ederki erakusten digun bezala. Baina erne: auskalo hirurehun horietatik zenbat ziren hiru olajaunenak?: 250en bat bai, gutxienez. Baina Ezkurrari, halere, *“que todos son hijos dalguo”*, eta Leitzan edo Goizuetan hori ere ez. Esaten baitut nik... Umorea baino hoberik!...

BASERRIA ETA ELIKADURA. ETORKIZUNEN ERRONKAK



Joan den ekainaren 13an, Mundubat Fundazioa, Mugarik Gabe Nafarroa eta IPES Fundazioak antolatutako "Gobernantza lokal eta eraldatzailea elikadura burujabetza eta genero berdintasun gakoekin" prozesuaren bukaerako saioa egin zen Nafarroako Parlamentuan. Prozesu hau Nafarroako bost merindadetan burutu da sei hilabetetan zehar, eta herri eta bailara askotako emakume ekoizleek, maila lokaleko instituzioek (hala nola udaletxeak edo landa garapen agentziak) eta gizarte mugimenduetako eragileek parte hartu dute. Besteen artean ondoko herrietako jendeak parte hartu du: Tuterara, Argedas, Tafalla, Erriberrri, Berbintzana, Lizarra, Deierriko bailara, Amezkoak, Iruñea, Baztan, Sakana, Zangotza, Otsaggi, Irunberri, Leitza. Leitzatik han izan gara emakume ekoizleak, LeitzEKO kontsumo taldeko ordezkariak eta Leitzeko udaletxeko ordezkariak.

Emakume ekoizleok tailerretan ateratako arazo, kezka, behar eta proposamenak idatzi batetan jasota eraman genituen Parlamentuko saiora. Eta horrela genion "Nafarroa osoko 5 merindadetako emakume ekoizleak eta elikadura burujabetzaren alde lanean dihardugunak elkartu gara. Eta jabetu gara ekoizpen txiki/ertainetan oinarritutako nekazaritza ereduak lantzen dugun emakumeok toki guztietan arazo eta ezintasun berdinak ditugula.

Hala ere, arazo eta ezintasun gehienak, gure nekazal munduan emakumezko naiz gizonetzko, guztiok orokorrean bizi ditugunak badira ere, beste batzuk, bereziki guri, emakumeoi eragiten digutenak dira.

Gabezien zerrenda luzearekin hasita, lehenik esango genuke nekazariok burujabetza eta autonomia galdu dugula, ez dugula erabakitzeke botererik,

kanpoko erabaki politikoek eta merkatu askeko joko arau suntsitzaileek baldintzatuta dagoela erabat gure jarduerara, eta dugun erabakitzeke tartea oso urria dela.

Honekin batera, jabetzen gara gizarteak zein administrazioak ez duela ezagutzen ezta ere baloratzen gure lana. Administrazioak ez du tokian tokiko ekoizpen txikia, lurraldeari lotutakoa, babesten eta bultzatzen. Administrazioak ito egiten gaitu gehiegizko paper eta burokrazia konplexuekin; diru-laguntzen menpeko egin gaitu; ez du gure neurriko esplotazioei egokituriko legedirik egin; ondorioz, gastu izugarriak egitera behartzen gaitu, gure produktuaren prezioa behera doan bitartean, gure esplotazioen bideragarritasun ekonomikoa kolokan jarriz; UTAK eta horrelak ez dira bateragarriak gure ekoizpen txikiekin. Honek guztiak zorpetzea dakarkigu eta lan karga izugarria bizkarreratzea. Horrelako lan baldintzen ondorioa zein da? Lehena, estres ikaragarria eta osasun arazoak eta bigarrena, nekazari txikiak lanbidea uztea.

Orain arteko politiken ondorioz, Nafarroan geneukan nekazaritza aberatsa eta anitza desagertzen ari da eta landa eremuak berez zuen egiteko nagusia, hots, herritarrak elikatzea, lurraldea egituratzea, ingurumena eta biodibertsitatea kudeatu eta zaintzea galtzen ari da. Ondorioa begi-bistakoa da: gure herrixkak husten eta hiltzen ari dira.

Honi guztiari, egunerokoa oraindik gehixeago zailtzeko, zerbitzu publiko eskasia gehitu beharko genioke, familia eta lana kontziliatzeko arazo izugarriak sortuz.

Eta emakumeon kasuan hau dena gehiago konplikatzen da. Sektoreak bizi dituen zailtasun orokor horiei gehitu behar baitzaio oso inguru maskulino eta matxistan bizi garela. Emakumeak ekonomikoki bigarren mailakoak gara, guk egindako lana ez da baloratua, ezta aintzat hartua ere. Gehienetan ez gara existitzen. Ezikusiak gara.

Hitz gutxitan esanda, eredu produktibo neoliberal eta patriarkal baten menpeko gara, jendea nekazal eremutik kanporatzen duena eta emakumeak baztertzen dituena. Monolaborantza, intentsifikazioa, zorpetzea, txikiaren desagerpena eta lurrak eta ekoizpena gutxi batzuen eskuetan pilatzea bultzatzen duena. Eta administrazioak hau babestu eta lagundu du bere politikekin eta diru publikoarekin. Hor ditugu ekoizpen esplotazio handiak, Nafarroako ubidea, transgenikoak, e.a. luzea.

Horregatik guztiagatik, aho batez diogu horri denari aurre egiteko dagoen bide bakarra eredu produktiboa aldatzea eta elikadura burujabetza eraikitzea dela. Guk emakumeok, eta nekazaritza mundua oro har, gero eta ozenago eskatzen ari gara administrazioak orain arteko bidea albo batera utzi, norabidea aldatu eta elikadura burujabetzaren eta nekazaritza iraunkorraren aldeko apustu irmoa egin dezan. Bide berri hau jorratu eta indartu eta landa eremuaren egiteko multifuntzionala berreskuratzen lagunduko duten politika publiko ausartak behar ditugu eta horretarako behar den finantziarioa.

Ildo horretan, ekintza zehatz batzuetarako proposamenak ere eraman genituen, sei puntutan antolatuta: **haziak** (bertako hazien bankua sortzea eta transgenikoen debekua eskatuz), **lurra** (komunalarren funtzio soziala mantentzeko eta baserrien transmisioa laguntzeko bitartekoak eskatuz), **diru-laguntza publikoak** (hauek nekazaritza espekulatiboa bultzatu beharrean nekazaritza iraunkorra indartzera bideratuak egon daitezela eskatuz), **salmenta zuzena eta zirkuito motzeko komertzializazioa** (ekoizpen txikiei egokitutako araudiak sortuz eta hauen arabera eskakizunak aplikatuz eta herri eta hirietako auzoetan azokak antolatuz), hezkuntza (agro-ekologiako **hezkuntza** arautua eta ez arautua sustatuz, eskola curriculuman gaia txertatuz eta herritarren artean sentsibilizazioa landuz) eta **zerbitzu publikoak** (familia eta lanaren arteko kontziliazioa lagunduko duten zerbitzuak bermatuz).

Prozesu hau Nafarroa mailan garatzen zen bitartean, hemen Leitzan joan den urteko azaroko azoka arrakastatsua burutu eta gero, Leitzako udalak eta LeitzEKO kontsumo taldeak bultzatuta “nekazaritza mahaia” sortu zen 2016ko azaroaren 24an. Mahaia Leitzan bertako produktua eta nekazaritza jasangarria bultzatzeko estrategia eta ekintza plana diseinatzeko helburuarekin eratu da. Herritar guztiei zuzendutako lehen bilera irekian helburuak eta metodologia azaldu ziren eta gaiaren inguruko hausnarketa prozesuari ekin zitzaion.

Lehen urratsa elikadura kate osoko egoerari buruzko diagnostiko bat egitea izan da. Horretarako, ekoizpenaren alorrean herriko 42 baserriar eta Aresoko beste 12 elkarrizketatu dira, hauek dituzten zailtasunak, ahulguneak, indarguneak, beharrak eta eskariak ezagutzeko. Honekin batera, kontsumoaren atala ere aztertu da. 314 inkesta egin dira herritarren artean, hauek dituzten kontsumo ohiturak ezagutu eta gaiari buruz duten iritzia eta ekarpenak jaso ahal izateko. Bukatzeko, herriko komertzio eta ostalarien ikuspegia kontsumo taldeak jaso zuen iaz egindako lanketari esker.

**Datu guztiak bildu eta gero, ateratako ondorio eta proposamenekin txosten bat egin da eta heldu den udazken hasieran (iraila bukaera alde-
ra) aurkeztuko da jende aurrean. Ondoren, Leitzan elikadura burujabetza, nekazaritza iraunkorra eta bertako ekonomia indartzen lagundu ditzaketan hurrengo urratsak erabakiko dira herritarren parte hartzearekin.**

Esan behar da Leitzako nekazaritza ereduak bat egiten duela emakumeek oro har ordezkatzeko dute-
narekin eta azaldu diren arazoak berdina direla. Sektoreak bizi duen krisi kronikoa agerian gelditu da bai hemen eta baita Nafarroa osoan ere eta eskariak eta proposamenak egiterakoan ere bide beretik jo dute batzuek zein besteek.

Krisia, ordea, ez da sektoreari modu isolatuan erasotzen dion gaitz bat. Gaixo dagoena elikadura eta nekazaritza eredu industrial bera da, munduko elikaduraren arazoa konpondu beharrean era guztietako arazoak sortu baititu. Ekoizle txiki-ertainek hemen eta mundu osoan arazo berdinean aurre egin behar die. Hauen ikuspegia ezagutu dugu zertxobait, baina horrekin batera badira aipatu beharreko beste alderdi batzuk ere. Egun elikadura arloan indarrean dugun sistemari esker inoiz baino okerra-

go jaten ari da gure gizartea orokorrean, ekoizte zein elaborazio prozesuetan erabiltzen ari diren hazi eraldatu, ongari sintetiko, pozoi, zein aditibo kimikoen ondorioz. Hemen ere eredu amerikarra hedatzen hasia da, kontsumitzaileak oro har gero eta janari txatarra gehiago kontsumitzen du eta.

Eta bestetik ingurumenean eragiten ari garen mina dago. Gure arbasoek lur aberatsak utzi zizkiguten. Egun nagusi diren praktiken ondorioz, ordea, hurrengo belaunaldiei lur pobretuak, kutsatuak uztera goaz. Lurpeko ura kutsatzen ari gara, biodibertsitatea galtzen eta gainera klima aldaketa eragiten. Adituek diotenez, elikadura eta nekazaritza industrialak dira honen eragile nagusietako bat.

Aipatutako guztiagatik, elikadura eta nekazaritzarekin dugun arazo potoloa ez dira jada baserritarron ardura, guztiona baizik. Kate osoa osatzen dugun alde guztioi, herritarretik hasita administrazio arte, dagokigu eredu aldaketa eraikitzen hastea, bakoitzak dagokion ardura zatia bere gain hartuz. Azkenaldian asko hitz egiten da aliantzataz. Nafarroa mailan egin den prozesuan eta hemen Leitzaan egiten ari garen lanean argi ikusten da elkarlanaren eta saretzearen beharra. Via Campesinak zioen modura gizarteko eragile ezberdinen arteko indar metaketa ezinbestekoa du elikadura burujabetzaren eta eredu jasangarriago baten eraikuntzak, multinazional gutxi batzuen interesen arabera antolatutako ereduari aurre egingo badiogu.

Eta eredu berri horren eraikuntzan ezinbestean hiru galdera nagusiri erantzun beharko zaie:

- **Lehena. Nola lortuko dugu herritar guztiek elikadura osasuntsurako eskubidea bermatua izatea?** Egun badago tentaldi bat eta da jende gehiengoarentzat elikadura “txatarra” ontzat ematea eta ahalmen ekonomikoa duten gutxi batzuentzat “ekologikoa” egitea. Hori da botere ekonomikoek nahi dutena eta administrazioak duen politika. Ba, justiziazko ikuspegi batetik begirata, joera hau gainditu egin behar da.



- **Bigarrena. Nola elikatuko dugu mundua ingurumena errespetatuz eta zainduz, lurraldeen arteko orekari eutsiz eta tokian tokiko garapena bultzatuz?** Ez da aski ekologikoan ekoiztea, hau industriak ere egiten badaki eta. Ekoizpenak tokian tokiko lurraldeari errotuak egon behar dute eta hauek garatu eta kohesionatzeko balio behar dute, beste lurraldeek duten garapenerako eskubidea errespetatuz.
- **Hirugarrena. Nola bermatu ekoizlearen, emakumezko zein gizonezkoaren lan baldintza duinak, bai hemen eta baita munduko txoko guztietan?** Ekonomia globalizatu den bezala, munduko baserritarren duintasuna ere globalizatu egin behar da.

Hanka hauetakoren bat ahaztuz gero, aldaketa hanka-motz geldituko da. Ez da makala aurrean dugun erronka, baina bai ilusio-sortzailea. Jarrai dezagun, beraz, lanean, Via Campesinak dioen moduan “globaliza dezagun borroka, globaliza dezagun itzaropena.”

GOTZONE SESTORAIN
LEITZEKO KT ETA ETXALDEKO KIDEA

BIZITZEKO, PENTSATZEKO ETA KONTSUMITZEKO BESTE MODU BAT

Gure herrian egungo ekoizpen eta kontsumo sistematik urrunduz beste modu batera kontsumitu, aurreztu eta bizitzea posible delako esaten dugu kontsumo kontzientea eta arduratsua bultzatu nahi dugula.

Leitzan, beste herri eta hiri gehienetan bezala, kontsumismo eroso, neurrigabea, pertsona bezala ditugun gure behar errealetatik urrunduz joan gara eta gure gertuko eta urrutiko inguruarekin eta etorkizuneko belaunaldiekin ardura falta indartzen ari gara.

Merkatal zentro ikaragarriak, banaketa kate handiak eta nazioarteko markak ugari dira bazter guztietan, dendari txikiak eta baserritarrak beraien dendak eta nekazal ustiapenak itxi behar izan dituzte edota kasu hoberenean bizirauteko zailtasun ikaragarriak dituzte. Honekin batera, hazkunde ekonomikoak gora egin ahala, gure kontsumo mailak handitu egin dira eta horren ondorioz sortzen dugun hondakin maila ere bai.

Kontsumismo honeri eusten dion ekoizpen sistema guztia, neurri handi batean baliabide, erregai fosil eta energia ez berriztagarrien menpe dago eta baliabideak amaigabeak balira bezala kontsumitu eta ekoizten dugu. Baina ingurumenaren arazoaz gain, gizarte arazoa ere hor dago, hau da, kontsumitzen dugun hori nork eta zein balditzetan ekoiztu duen galdetu beharko genioke gure buruari. Eta hemen ikusten ari gara, askotan milaka kilometrora ekoizteaz gainera, gure erosketen zati handi bat langileek ekoiztuak izan direla eta batez ere emakume langileak. Emakume hauen lan baldintzak, lan eskubideak, giza eskubideak urratzen dituzte eta batzutan esplotazio eta esklabotza egoerak ematen dira. Horren ondorioz, batzutan urrun fabrikatutako produktuak oso merkeak izaten ditugu eta hortik abiatuz azaltzen da kontsumitzen dugun horri balio erreala eta prezio justu bat ordaintzeko beharra.

Ardurarik gabeko kontsumoak emakume eta gizonen arteko desberdintasunak areagotzen ditu. Produktu askoren publizitatea sexista da, emakumeak

etxeko eremura eta edertasunarekin, garbiketarekin eta zaintzarekin erlazionatutako erosketetara baztertzen ditu ditu. Gizonetan aldiz, lehia bultzatzen da eta kostu handiagoa duten erosketetara, autoak edo teknologia bezalakoetara, bultzatzen ditu.

Hori horrela, gure buruari galdetu beharko genioke nork erabakitzen duen zer erosi eta nork erosi ohi duen zer, eta kultura eragin horiek eta genero estereotipo eta rol horiek eguneroko kontsumo ereduetan nola baldintzatzen gaituzten aztertu.

Kontsumo Kontzientea eta Arduratsua egin nahi badugu, hor eman beharreko oinarrizko lehen urratsak:

- 1 Egungo ekoizpen eta kontsumo eredua zalantzan jarri eta pertsona bezala ditugun benetako beharrei buruz hausnartzen hasi
2. Ondasun, elikagai eta zerbitzuen gure kontsumo ohituren murrizketa eta aldaketa batekin jarraitu

Kontsumo Kontziente eta Arduratsuak, alternatiba iraunkorrak, bertakoak eta gertukoak bultzatzea bilatzen du, ekoizpen txiki eta ertainetan oinarritutako nekazaritza eredu jasangarriak indartuz. Elikagaien kasuan gainera, pozoirik gabekoak eta garaiakoak izatea eskatzen du, bere ekoizpen eta garraioan ingurumenaren sortzen duen eragina gutxitzeko. Gure bizitza eta kontsumo ohituren bitartez gure ingurua eta gure baserritarrei lagundu-ko diegu.

Horrez gain, pertsona eta herrien artean, ipar eta hego artean, emakume eta gizonen arteko gizarte desberdintasunak iraunarazten dituen sistemarekin kritikoak izan behar dugu eta solidarioa, justua eta berdina den ekoizpen eta kontsumo eredu baterantz doan gizartea sustatu.


Halere, gaur egun, elikagaien ekoizpena eta salmentaren zati handi bat, botere osoa duten enpresa transnazional kopuru murriztu batek kontrolatzen du eta irabazi ekonomikoak lortzera bideratuta daude eta ez pertsonen beharrak asetzera. Hau da munduko

1000 milioi pertsonen gosea pasatzen dutenaren arrazoietakoa bat, edo nekazariei eta herri indigenei beraien lurak etengabe kendu eta beraien lurraldeetatik etengabe mugitzearen arrazoietakoa bat.

Gure beharrak birplanteatu behar ditugu eta zer behar dugun pentsatu, beharrezkoak ditugunak beharrezkoak ez direnetatik bereiziz. Hemendik abiatuta, lehen pausua da poliki-poliki gutxiago kontsumitzea eta berrerabilpena eta birziklapena aukatzea.

Zentzu honetan, kontsumitu aurretik eta kontsumitzen ari garen bitartean hainbat galdera egin diezaiokegu gure buruari: **Benetan behar al dut erosi nahi dudan hori?**

1. Erantzuna baiezkoa denean, nola ase dezaket behar hori produktu berri bat erosi gabe? **Aukerak: beste produktu bat berrerabili edo birziklatu, nik neuk fabrikatu, truke merkatu batean nik behar ez dudan zerbaitegatik aldatuz lortzea, bigarren eskuko denda edo merkatu batean eskuratzea, ...**
2. Aurreko erantzunak bideragarriak ez badira, orduan produktua berria lortzearen aukera planteatu dugu. Non jar dezakegu arreta gehiago:
 - Kotxez noa azalera handiko denda batera edo auzoko denda batean egiten dut erosketa? Hau da, dendari eta saltzaile txikiei mesede egiten diet eta ondorioz nire herri edo hiriko ekonomiari edo kate handien eta merkatal guneen onurak gizentzen ditut?
 - Nondik dator erosten dudana? Planetako beste aldetik dator hotz-ganbera handitan eta bere garraio eta kontserbazioan atmosferara CO2 tonak isuriz edo bere garraioan eta kon-



tserbazioan gutxiengoa kutsatu duen, gertuko produktu bat al da? **Aukerak: bertako ekoizpen produktua eta ahal diren gertuenak izatea**

– Nola saltzen didate erosten dudana? Nola doa ontziratua? Materialetan aurrezten saiatu al dira eta ondorioz, bere ontziratzean hondakin gutxiago sortu? Edo aldiz, kartoizko kaxa

baten barruan plastikozko erretilu baten barruan banakako ontziratzeetan datozen produktu horietako bat al da? Aukerak: ontziratu gabeko produktuak, gutxiengo ontziratzearekin, ehunezko poltsen erabilera, banakako edo gehiegizko ontziratzea daramaten produktu txikiak ekiditea.

- Zein baldintzetan ekoiztu da? Ingurumenarekin arduratsua edo aldiz oso kutsakorra den enpresa bat al da? Enpresa horrek langileen eskubideak errespetatzen al ditu edo bere ekintza eskubideak urratu eta esplotazioan oinarritzen al du? **Aukerak: bertan ekoiztutako produktuak eta bidezko merkataritzako produktuak izatea**
- Fruta edo barazkia den kasuan... Nola izan da landatua? Lurraren erritmoak errespetatu al dira edo aldiz lurra gain-esplotatu da? Transgenikoa al da? Gure osasuna kaltetzeaz gain, ingurumena kaltetzen duten pestizidak eta gainerako produktu kimikoak gehitu al dira? **Aukerak: produktu naturalak, bertakoak, garaikoak, ekologikoak kontsumitzea.**
- 3. Produktua erabiltzerakoan, zer egin dezaket zaintzeko eta ahal den gehiena irauteko? Modu honetan sortzen ditugun hondakinak gehienera murriztea lortuko dugu.

LEITZEKO KONTSUMO TALDEA

(Gure proiektuen gaineko informazioa jasotzeko www.leitzekokt.eus webgunean sartu edo bazkide egiteko info@leitzekokt.eus posta elektronikora mezua bidali).

EUSKAL HERRIKO ETA LEITZAKO MITOLOGIA: AMA-MITOLOGIA

Barandiaran Leitza

1920. urtean Jose Migel Barandiaran Leitza etorri zenean, euskal mitologia bizi-bizirik zegoen gurean, beste herri askotan bezala. Orduko euskal jendeak kristautasuna baino lehenagoko erlijioa zuen, edo, gutxienez, paganotzat jotzen diren sinesmen eta erritual bereziak gordetzen zituen, betiere, naturan oinarriturikoak: Lurra, Eguzkia, Ilargia eta abar jainkosatzen hartzea eta gurtzea; izaki mitologikoengan sinestea eta magikotzat hartzea (sorgin, jentil, Orantzaro...); erritu bereziak egitea naturaren elementuak erabiliz; konparaziora, ekaitzetatik babesteko etxeko ezkaratzean su txikian loreak erretzea, eguberrietan solstizioa ospatzeko orantzaro-enborra biztea eta su handiaren inguruan ibiltzea, eta abar.



Erasoteko zainak dituzten emakume argi bi: Maria Jesus Sagastibeltza, Ozparrun aldetik, eta Itziar Sagastibeltza, Barundik.

Antropologo ataundarra Leitza izandu izana baieztatu ahal izandu dugu herriko emakume xaharrei galdetuta. Horraino iristeko lehen aztarna izandu zen haren lanetan idatzirik ageri den Leitza bere informatzaileetako bat honako hau izandu zela: Jose Joaquin Sagastibeltza, Ozparrun baserrikoa. Eta zer da eta, gure ahaideetako bat izaki. Hala, orain berriro, Maria Jesus Sagastibeltzari,

Ozparrungo ahaide haren alabari, galdetu genion ea ba ote zekien deus horrenik, eta hark honelaxe erantzun: *“Bai, bai, gure amak esaten tzun, Barandiaran hori Ozparrune nola etorri zen, herriko abadea zen Don Inaziokin, sorgin kontuk eta ikastea. Ta gure atte eta ama hantxe aittu omen tzien sorginen eta jentilen historik esan eta esan: Ozparrungo amona nola aitzen zen jentilleri launtzen partoitant-eta, hain zulora sartute; borroa nola erantsi zioan Ozparrungo etxekoandrei, hezur-muñetako miñik etzula faltako, urrezko eraztuna eaman zioalako jentil hairi...”*.

Euskal herria kristautua, baina aurreko sinesmenak galdu gabe

Arestiango historia horiek guziek sinesmen paganoen berri ematen digute, jakina. Hala, argi dago gure lehengo mitologiak bizirik iraun duela guregan, baita leitzarrongan ere, mendez mende, gaur egun arte. Duela ehunka urte hasi omen ziren kristautzen gure herria: historialariek diotenez, IV. mendean hasi zen kristautze-prozesua Konstantino enperadoreak 313. urtean kristautasuna ezarri zuenean Erromako inperioaren erlijio ofizialtzat, eta VII. menderako edo burutua zegokeen: Euskal Herri osoa kristauna omen. Ez ba, kolonizazio horrek ez zuen lortu gure mitologia desagertzea; herrietan, eta batez ere baserri giroan, lehengo sinesmenei ere eutsi baitzieten gure aurrekoek. Euskararekin gertatutakoaren antzera, gure aurreko arbaso haiek eutsi zioten berenari, oztopoak oztopo. Iraupen harrigarria, inondik ere, ama-hizkuntzarena, eta baita amamitologiarena ere.

Gure xaharrek zinez eta benaz sinesten

Gure arbasoek eutsi eta eutsi, eta, azkenean, haien mundu ikuskera berezkoa XXI. mendera arte iritsi. Gu gerok izandu gara horren lekuko eta entzun izan dizkiegu laurogeitaka urteko emakumei izaera mitologikoko historiak eta gertaerak, zinez gertatuak bailiran kontatuak, fedez eta sines-

menez: besteak beste; **Maxurrenea, borroa borroaren gainean dagoen etxea.**



Maxurreneko barkilloaren historia, egi berdadero moduan entzun izan dugu, izen-abizenak ere emanez; Maxurreneko nagusia, haren neskamea, ustez barkiloa lapurtu zuena, norik bihurritu zuen kandela, adurrek nola ihartu zuen gaztain arbola; Kattalin izeneko neska baserritarra ere horrela desagertu zen, jentilek eramanda haiekin kobazulora, gabetan iruten aritzen zelako Ilargiaren argitan; Peusteneko horretan akelarrea ere ospatu izandu zuten lehengo sorginek, amona sorgin ttiki haietako batek, dantzatzen zen bitartean, hau kantatzen zuela: “Txomindomingon batzan, akerrak ezpatadantzan, gaur Txomindomingo hemen balitz, akerrak lieke!!!”...

Euskal Herriko Mitologiari buruzko ikastaroa

Kontakizun harrigarri eta liluragarri horiek hala entzunda, gaian sakontzeko erabakia hartu genuen; penagarria iruditzen baitzitzaigun altxor hori desagertzeko zorian ikustea.

Hala, behinik behin, iaz, Euskal Mitologia ikastaroa egin genuen UEUn, Ixabel Millet aditu eta historialariarekin; eskolan urte askoan ibili arren, arbaso euskaldunen erlijio zaharraren arrastorik ez baitziguten erakutsi. Greziakoa, Erromakoa eta Egiptokoa bai, baina gurerik ez.

Euskal mitologiari buruzko zenbait kontu jakingarri ikastarotik atereak

Ikastaroko zati garrantzitsu bat honako liburuan zegoen oinarriturik: “Euskal mitologia, izena duen guzia omen da”, Andrés Ortiz-Osesek eta Luis Garaizak egina. Herriko liburutegian aurki zenezakeen liburua da. Jose Luis Uhartek pozik utziko dizu. Dena

dela, guk orain zurekin konpartitu nahi ditugu liburuko kontzeptu garrantzitsu batzuk, euskal mitologia hobeki ulertzeko eta gure herriarekiko lotura ere ikusteko.

Kultur monumenturik garrantzitsuena

Nabarmendu beharreko lehen ideia hau da: **Euskal Mitologia**

da, ‘hizkuntzarekin batera, euskal tradizioaren kultur monumenturik garrantzitsuena. Euskara antzinako euskal hizkuntza bada, euskal mitologia antzinako mintzaira da, indoeuroparraren eta kristautasunaren aurrekoa’.

Ama-mitologia edo mitologia matrial-femeninoa


Liburuko beste pasarte garrantzitsu bat duzu honako hau: “Agian, *hau da euskal mitologiaren gauzarik positiboena; ez da bere panteoiaren aurrean jainko aita duten patriarka-mitologiaren taldeko, izan ere, **Ama Lurra** pertsonifikatzen duen Mari izeneko **jainkosa ama** proiektatzen baitu.*” Eta ondoren honako hau erantsi: “Jose Migel Barandiaran izan da euskal tradizio mitologikoaren biltzaile nagusia eta jakintsuena, hari zor diogu gaur egun dakigun gehiena.”

Euskal Herriko mitologia matrial-femeninoa da eta paleolitikotik datorkigu

Aurrerago, hau ere aipatzen dute liburuan: “Gizakion sorreratik, goi paleolitoan ere **ama-mitologia** nagusitu zen, Paleolitoko Venusak, jainkosak ere **emakumeak** baitziren, naturaren sorkuntza ahalmenarekin zerikusia duen zentzu magikoa eta erlijiosoa izan lezake eta modu horretan **femenino** gisa irudikatzen da ahalmen hori. Irudi maskulinorik ez da agertzen...”

Munduan oso gutxi dira mitologia matrialak

Hala ere, liburuaren arabera, paleolito garaian ez bezala, gaur egun hagitx gutxi dira mitologia matrialak: “*Munduko mitologia matrialaren ordezkariak hauek dira: arioen aurreko garaiko Indiakoa, indoeuroparren inbasioen aurreko garaiko Kretakoa, Polinesiakoa Trobiand uharteetakoa, Andeetako Pachama, eta Euskal mitologia, Barandiarani esker jasoa.*”



Mendebaldeko eredu nagusi patriarkal maskulinoak eta Euskal Herriko matrialaren iraupena

Aurrera joaz, beste aipamen berezia duzu honakoa, Europako sinesmenen aldaketaz ari direla: “Mendebaldean, gurean ez beste guzietan, erlijio patriarkal maskulinoak nagusitzen hasi ziren k.a. 2.000 urtez geroztik, greziarren eta hebrearren konkisten eraginez, batez ere. Horietan erdigunean gizona, patriarkala, nagusitu zen, haren agintea indartuz, eta emakumearen esanahia ahulduz.”

“Euskal Herrian, ordea, **amonek** eta **amek** antzinako sinesmenak transmititu zituzten eta mito indoeuroparren ezarpena gainditu zuten aurrena, eta mito kristauena ondoren. Marija Gimbutas arkeologo alemanak dioenez, gurean jainkosa ardatz hartzen zuen erlijioa luzaroan existitu zen, eta marka ezabaezina utzi du horrek mendebaldeko psikean.

Lurra, Ilargia eta Eguzkia, hirukote berezia



Honatx nola lotzen diren gure jainkosa nagusiak beren artean gure mitologiaren arabera: “Lurra **Ama-Jainkosa** edo jainko **matriala** da, beraz, **femeninoa** eta ez maskulinoa. Horrek esan nahi du lurra **emea** dela. Eta **eme-izaera** erradikal hori indartu egiten da kontuan hartzen badugu bere umeen artean Eguzkia

eta Ilargia daudela. Bi horiek ere, bitxia bada ere, **femeninoak** dira, hau da Ama Lurraren alabak. Euskal mitologiaren alderdi espezifikoak da hori. Beste mitologietan eguzkiak genero maskulinoa du (konparaziora, gaztelera) eta ez **femeninoa** euskal mitologian duen bezala. Hori oso garrantzitsua eta interesgarria da kultura arloan. Lurra eta bere alabek izaera matrial eta femeninoko hirukote mitologiko oso berezia osatzen dute. Gure mitologiaren lur-zentzua edo zentzu telurikoa indartzen du eta mentalitate berezia irudikatzen du ohiko mitologia patriarkalekiko.”

Mari edo Maimur: lurraren pertsonifikazioa

Mari jainkosari ere eskaintzen zaio liburuko atal garrantzitsu bat, jakina. Honatx pasartetxo bat: “Euskal mitologiaren ezaugarri nagusizat jo daiteke eus-

*kal mitologiak munduari buruz duen ikuskerak Mari-
ren irudiaren bueltan bira egiten duela sinbolikoki eta
Marik oso lotura estua duela Lurrarekin”.*



Horretaz gainera, hau ere badakar liburuak: “gure mentalitate tradizionalaren gakoa Mari da, **jenio femeninoa** edo izaki sekretua. Jainko gorena. Izena Mari edo Amari, Maya edo Amaia,” edo Maimur gurean.., “natura bera pertsonalizaturik. Lurra unibertsoaren **ama-gorputza** den bezala, Mari unibertsoaren **ama-arima** da, gauza guzien sortzailea”.

Emakumea aintzat hartua gure mitologian eta gure herrian

Aurreko guztiaren ondorioz, esan liteke gure mitologiaren alderdirik adierazgarriena dela gurean **emateak, neskak, amonak, amak, etxekoandreak** oso aintzat hartuak izandu direla. Paleolito garaiaz geroztik datorkigun sinesmena da emakumearen izaeratik sortua, birsortzeko ahalmenetik, bizia emateko sustrietatik. Europako gainerako mitologietan ez bezala, hemengoan Ama-lurra ageri zaigu bizi sortzaile nagusizat, eta Ama lurra berak sortuak dira Ilargi amandrea eta Eguzki amandrea.

Leitzan matrialismoak ageri al da?

Hemen Maimur (Mari) goi-sorgin emea dugu guztien buru egiten duena, ekaitzak eta jasak eragin ditzakeena. Bestelako sorginak, jentilak eta gainerakoak, harrak edo emeak izan litezke, ez baitute sexu bereizketarik, gurean, behinik behin, generikoak dira horiek. Alegia, sorginak gurean ez dira emakumeak, emeak edo harrak baizik. Gainera, animalia figuran ere azaltzen dira askotan. Jentilak ere ez dira gizonezkoak, emeak edo harrak baizik. Gurean gainera begibakarrekoak dira askotan, begi haundi bakarria dute-nak kopetan erdian. Eta Orantzaroak ere, zer esanik

ez, gurean ez dira pertsonai mitologiko harrak, sorgin-jentilen familia bereko pertsonai misteriotsuak baizik, emakume nahiz gizon itxurakoak. Hala, Benta aldeko sorginak harrak eta emeak dira, eta berdin Erasote aldeko jentil gautxoriak, edota Errekako Orantzaroak ere.

Beraz, munduarekiko euskal ikuskera berezi hori, aurrez aipaturiko matrialismo hori berretsi egiten da gure herrian, batez ere Orantzaroari esker.

Ama-mitologia indarturik gurean

Aurrez aipatu ditugun adituek nabarmentzen duten euskal mitologiaren emetasuna indartu besterik ez du egiten Leitzako pertsonai mitologikoen izaerak. Eta bereizgarri gisa nabarmendu genezake Orantzaroa: gure tradizioaren araberako Orantzaroak balio erantsia ematen baitio euskal mitologiari, zalantzarik gabe; Barandiaranek eta ondorengoek aipatzen duten euskal mitologia berariazko eta bereziari, alegia, mitologi-matrialari. Euskal Herrian gauzarik natural eta berezkoa baita **pertsonai mitologiko nagusiak emeak** izatea. Beraz, gure Orantzaro tradizioa ere hor kokatzen da, bete-betean.

Horren harira, Anuntxi Arana, unibertsitateko irakasle, feminista eta antropologoa, harriturik gelditu zen gure tradizioaren berri jaso zuenean, 2012an mitologiari buruzko hitzaldia ematera etorri zenean Leitzara. Eta esan zigun tradizio hori jasotzeko bertako xaharrei galdetuta, oso baliosoa zela. Gainera, Europan pertsonai bakarra zegoela **emakumezkoa** eguberriekin lotura zuzenekoa; hain zuzen ere, Italian, Befana izeneko sorgina. Eta Orantzaroarena ere antzeko kasua zela, eta salbuespen ia bakarra zenez Europa osoan, kontuan hartzeko, gordetzeko eta eusteko.



Hortaz, esan liteke gure Orantzaroa Euskal Herriko altxor kulturalaren baitako beste perla bat dela, matrialismoa indartzeko ere. Jakintsu horien tesiak indartzera eta aberastera letorkeen tradizio eta mitologiako elementu zahar-berria. Gure herriko emakumeek bizitu, jaso eta gorde izandu duten altxorra oraindano.

Tradizio berezia eta aberasgarria

Esan liteke Orantzaroa emakumea izatea, izan ahal izatea bera, Barandiaranen lanen kokalekura garamatzala. Hark, 1920. urtean testigantza hori jasotzeaz gain, esana baitzuen ondorengo zenbait hitzaldi eta idazlanetan gai hori, emakumeen gailentze hori mitologian, berak azalarazi besterik ez zuela egin, eta matrialismo horretan sakondu beharra zegoela. Hor dugu, hain zuzen ere, leitzarrok euskal mitologiarekiko gure altxorra, bete-betekoa, gainera, bertan baino ez baita gorde, dirudienez. Ziurrenik, duela 100 urte, beste toki batzuetan ere, gure sorgin-jentil berezi eta berezkoa den olentzero edo Orantzaroa, askotan suzko begigorri azaltzen zena burutako kalabaza zuelarik, emakume gisan azalduko zen. Gurean bakarra ez zen izanen tradizio hori: Koherentea eta logikoa bai emakumea ere izatea, baina hemen bakarra gordetze hori, berezi eta bitxia da, inondik ere.

Gure eredu aberats eta anitzaren gainbehera

Eta nola gertatu ote zen ohikoa zen tradizio mitologikoa, Orantzaroa **emakume** irudian ere azaltzekoa, desagertzea horren epe laburrean?

Guk entzun izan dugunez, duela 60 urte inguru sari-keta edo txapelketa paratu zuten martxan Leitzan, aurrez Lesakan egin zuten bezala, eta haiei kopiatuz. Orantzaro panpinak paratzeko tradizioa indartzeko asmotan ezarri omen zuten txapelketarena; kopuruan gora egin zezan, beherantz baitzihoan. Hala ere, gure tradizio aberastasunari, onurarik batere ez zion ekarri txapelketak; epe labur-laburrean emakume irudia alboratzea eta baztertzea besterik.

Orantzaro-txapelketa antolatu eta bertako tradizioa baztertu

Orantzaro txapelketetako epaimahaian izandu izandu zirenak, bertakoak izanda ere, ez zuten gure ohi-terra ezagutzen, edo ez zuten aintzat hartu nahi izandu. Hala, behinik behin, txapelketa antolatzen hasi ziren, eta, gehiago ere izanen ziren baina, guri ailega-

tu zaigu Artxikonen gertatua: Txapelketarako deia egina dagoela, herritarrak hortxe hasi dira beren panpinak apaintzen eta abar, abenduaren 24erako ahalik eta panpin polittena agertzearren. Artxikonen ere izugarrizko lanak eginak, urte hartako txapelketan leitzar tradizio garbi eta puruko panpin dotore eta antzinakoen tipokoa moldatzeko. Hala bada, prestatu dute Maria Jesusek-eta beren Orantzaroa, emakume apain dotore politta, garai bateko emakumeen tipora jantzia, saskitxo bat besoan daramala, arraiatz eta beste zenbait jakiz osatua. Burua ere lege zaharrera trapuz egina, nola bestela? Betiere, ailegatu da Orantzaro-eguna, eta, hasi dira epaimahaikoak etxez etxe Orantzaroak begiratzen, eta, Artxikonekoa, han goian, balkoian, **emakume itxurakoa** zela ikusita, aintzat ez hartu eta zigortu. Saririk ez, eta gainera purrustika hartu, kargua hartu, halakoa paratzeagatik. Hauxe esan *omen* zioten Maria Jesusi: **“beño, beño, nola okurritu zatzo emakumea ittea? Holakoa itteare.”** Hark usu demonio erantzun, haiek zer ote zekiten Leitzako Orantzaro usadioaz baina. Kontuak kontu, emakume irudia zokoratua. Herrian behintzat, txapelketa abian paratuz geroztik, akabo, 2010. urtean berriz ere kultur taldeak usadioa berreskuratzeko saiakera egin arte. Bo, salbuespenen bat izandu da denbora tarte horretan; Artxikonen bertan airetan paratutako Orantzaro-sorgina, Martikonen azalduko amona itxurako hura....

Bertako emakumeen kezka eta kexua



Kultur taldean gai horretaz galdezka ibili garenean, emakume frankok egin izandu digu kexua, gai horrekin gertaturikoa salatzeke asmoan, edo emakume irudiaren bazterketa aldarrikatzeko behintzat: lehen, edozein tipotako figurak balio baitzuen orantzarotarako eta haren esanahia adierazteko. Batek edo bestek lotsa ere aipatzen zuten emakume irudia jarri izanagatik: *“guk hola ezautu giñun, eta hola itten zuen gure*

aurrekoak beño. Uain lotsa ematten do esate hutsek.” Esaterako, 2015ean hil zen Inaxi aliñekoak halaxe esan zigun duela bost bat urte, haren etxera joan ginen batean: *“Orantzaroa guk ttikitatik izautu giñun, gerraurren e bai. Beño etzen ordukoa Orantzaro-Orantzaroa izaten, ez. Hemen oso diferentea itten zen. Konpaziora, Zortzikonak behin jarri zuen **emakume bat**, dotore jantzita, bere haurtxoa zurezko karrotxoan zeamakila; eta Ojalateroan e **emakume jantzin** patzen zuen, eta baita dendarinen e. Beño esateizotena, hemen beste modu batera itten zen orantzarotakoa, askoz polittegoa gaña, nahi zunak nahi zun bezelakoa patzen tzun. Beño, ondoren hasi zien esaten, ezetz. Hasi zien esaten etzula hola behar, eta, akabo.”*

Itziar Sagastibeltzak ere, 2.000. urtean edo, euskal telebistako eguberrien gaineko programa batean esan zuen hemengo ohitura nolakoa zen. Adierazi zien hemengo tradizioaren arabera, Orantzaroa berdin izan zitekeela emakumezkoa nola gizonezkoa. Hori ohikoa zela eta haren etxean ere, Inaziobarunen, izaba Maria Jesus Sagastibeltzak beti emakumezkoa paratzen zuela. Ba, Itziarri ere zenbait lagunek kargua hartu zioten, hori esateagatik; modu txarrean kritikatu, gainera, hori esan izana.

Inaxik eta Itziarrek bezala, beste askok ere azaldu dizkigute antzeko kontuak bertako orantzaro-usadioaz: Maria Jesusek, Anttonik, Julik, Anastasiak, Mari-txuk, Emiliak, Axuntzionek, Maria Luisak, Epifaniak... Eta eskerrak gure herriko emakume berezi horiei; beren testigantza zuzena jaso gelditu baitzaigu, gerorako ere.

Amaitzeko

Euskaldunon erlijio zahar paganoa ulertzen eta Leitzan zertan den azaltzen saiatu gara idazki honen bidez. Orain, festak gainean ditugu, eta, akelarretan egin ohi den eran, gaupasa eginez ederki pasatzeko egokiera bikaina dugu gauezko Ilargi Amandrearen laguntzaz, Ama Lurak ematen dizkigun aberastasunez, jan-edariez, gozatuz. Dena dela, kontuz ibili! Eguzki Amandreak argitzen hasten duenerako hobe ezkutatzea! Gainekean, gutxi fida Maimur jainkosa haserretzea, gauean egindako gaiztakeriengatik, eta euri edo harri jasa izugarriren bat sortzea!

FERNANDO OIARTZUN SAGASTIBELTZA
ALKE kultur taldeko kidea

MENDE BERRIAREN ZAIN ZUEI ESKER!

Pesta hauetan Leitzako udalaren berreraiki zen mendeari amaiera emanen zaio, baina pozik esan dezakegu beste mende bateri emanen diogula hasiera. Orain ez zaigu egiten arrotza Plazaolatik pasatzen zen trenaren hotsa, ezta Leitzan egiten ziren eski txapelketetan elkartzen zen jendetza. Hiru ezkontzen berri izan ditugu eta esne marmitek nola jasotzen ziren badakigu. Leitzako nekazal eskolaren haurren irribarrek gurekin ditugu, baita Orixe gure herrian egon izanaren testigantza ere. Eta ziur nago mende berri honetan Leitzako historia eta irudi berriei tokia emanen diogula, Leitzak Historia egiten duen herritarrek dituelako.



Eskertza hauek inoiz ez dira nahikoak izanen orain arte liburuarekin bat egin duzuenentzat; kaltetik laupabost datu gehiago emateko gelditzen nauzuenentzat; argazki mordoak eskaintzen ari zaretenentzat;

ilusioz Leitzako argazki zaharren liburua Leitzatik kanpo dauden senideentzat erosten duzuenentzat; inoiz proiektu hau zabaltzeaz pentsatzen ari zaretenentzat. Eskertza handiarekin ez nizueke justiziarik eginen Leitzako lagunei eman didazuen ilusioa eta berotasunagatik.



Gogoeta eta oroitzapen asko nirekin gordeko ditut. Orain gozatzeko, ikusteko eta dastatzeko aroa iritsi zaigu. Leitzarron artean josi ditugun 100 urteko argazkien historiarekin istorioen sare bat osatu dugu, non gure herriko memoria harrapatu dugun datozen 100 urteetan inork ahaztu ez dezan.

Ongi pasa pestak!! Gora Leitze!

JULIAN ZABALETA

ELIZAKO LIBURU DIGITALDUAK

Lehendik ere aipatua eta ongi eskertua daukat, bestetan beste, *Goizuetan Bada Gizon Bat* liburuko 15, 155, 225 orrietan), **Salvador Yanci Prieto jaun lesakarrak** egin zigun mesede ezin pagatuzkoa. Lehengoak lehengo, minbiziak eraman aurretik, **Leitzako eta Aresoko elizetako liburuak** digitaltzen. Baina noren esku egon behar ote luke, Salvador zenak musu truk utzi zigun mahuka horrek? Behiala **Ander apezak** esandako hau ezin dut atzendu: “*Bai, Udal artxiboan edo Liburutegian uzteko asmoa dut kopia bana, nire lanak errazteko*”. Geroztik pasa da urte franko, eta **Inazio jaun apezak** badaki ongi, zenbat kostatzen zaidan edozein datu ttikiren erantzuna jasotzen.

Ez naiz hasiko norenak diren diskurtioan, bakar bakarrik esan, poz ederra emanen ligukela, **Apez, Alkate eta Liburuzain jaunek**, borondate onez elkartu, patxadan hitz egin, eta **herriaren serbitzura paratuko balituzte** Salvador zenak hartaraxeko digitaldu zituen datu horiek, **modu txukun eta erraz batean nahi duenak kontsulta eta erabil ditzan**.

Honatx 1738ko faksimile polita, Udala eta Eliza bat, nire eskariak zentzurik baduenek ikusteko:

Zail samarra egiten bazaizu dezifratzeko, honatx, berrizkoan ere, zure esker gaiztoaren truke, gixajo honen pazientzia eta borondatea. Beltzez markatuak neureak dira:


“En la junta de Concejo que la Villa de Leiza tubo el dia veinte y siete de Julio de mil setezientos treinta y ocho, los Señores Concejantes resolvieron, que respecto de hallarse muy maltratados los libros Bautismales, de Velados y Difinidos de la Parroquial de esta Villa, y ser conveniente para el bien publico, el que se trasladen. Que a costa y espensas de ella, se obtenga la facultad, que para el tal caso sea necesaria del Ytmo Sr. Obispo de este Obispado o

su Provisor, para que se trasladen y pongan en manera que hagan fee, los dichos libros y asientos de lo qual hice este auto, y en fee de ello firme io el dicho escribano.= Ante mi Lorenzo de Alduncin escribano.

Por traslado Lorenzo de Alduncin escribano.”

Jaiotzetik Goizuetaleitzako herritar izatean, usuarioz eta kulturaz **kristau** ere. baden batek Maisu Jaunei

PERU ABARKAK



(LUA, 20. lib, 7758 fot)

ZAZPI GAINAK ZAPALDUZ

Dudatan izan naiz aurtengo ibilbidea aukeratzeko unean, zazpi mendi gain zapalduz, baina bizpahiru zati ezagun direnak lotuz osatu dut aurtengo norabidea. Gerta daiteke zenbaitentzat luze samar gertatzea, horregatik, zatitan bana daiteke, nondik nora izan behar duen zati bakoitza norberaren indarrak marka dezan.

Hemen Joxe Migel Elosegik eginiko hasierako mapa toponimikoa Pablo Feoren laguntzarekin.



IBILBIDEA

Ohi den moduan herriko plazan emanen diogu hasiera ibilbideari, frontisen atze aldetik hartuta kanposanturako eskailerak igo eta *Santa Krutz* aldera doan kartzara moduko *Ormarteko* estarta hartuko dugu geure eskuin aldean Plazaolako trenbidearen arrastoa modu nabarian ikusiz. Hona iristeko, lehen bidegurutzean ageri zaizkigun bi aukerak baliagarriak dira.

Batak, ezkerraldea itzulia emanaz *Azerimalkor* aldera eginez eta herria behean ikusiz, *Zortzikorenborda* ondotik pasa eta Sorogain ezkerraldean utziz ermitara iritsiko gara. Bestea, berriz, bidegurutetik zuzen jarraitu eta jada ia ikusten ez den *Giltzur-itturritik* baselizaren aurre aldera “Gurutze-bidea” jarraituz.



Aurten 100. urteurrena dela eta, hemen tokitxo bat hartu nahi diogu, majina bat aldiz, besteren artean, irteeraren bati ekiteko abiapuntu izan baita.

Erdi erorian dagoen *Jaundegiko borda* alde batera eta aska bestean igarota, berehala erabat txikituta ageri den *Billartako bordatik* gora egiten dugu, malkartsu agertuko zaigun bidexka jarraituz. Lasai hartu malda, eta gora goazen heinean ohartuko gara motz samar izan arren kilometro bertikalaren antza duela.

Zubillaga deritzon paraje honetan berehala *Putzenborda* topatuko dugu.



Hona hemen tokitan den *Putzenborda*.

Han bertan beste aska dago eta honek mesede eskainiko digu egun bero edota sargoritan, ura bertara iritsiz gero, noski, askotan aspaldi honetan agortuta egoten baita. Eskuin aldean *Oialde* paraje zabala ageri da. Hemen, bideak erakusten digun moduan hasieran lizarren artean eta pagaditik ondoren, *Akutio* den ingurua eta *Anikote-zelaia* igarota *Mukarraingo* ataka aldera igarota pista alde-rantz joko dugu. Hemen errebuelta honetan eskuinera, bi minutura gain txiki bat dugu eta merezi du gora igotzeak, Erasote aldeko ikusmira bikaina eskaintzen baitigu.



Makarraingo ataka ingurua.

Hemendik aurrera geure hurrengo helburua *Korniet*a gaina denez, nahitaez esan behar da, laino edo ez egoki den eguraldia suertatuz gero, Aritz mendi lerro guztia zeharkatuz pistari jarraitzea besterik ez dugula irtenbidea, *Patzikuren belasoroa* eta *Larrezabaleta* ondoren zeharkatuz.



Aipamen modura esan inguru hartan, Akution, Anikote-zelaian hain zuzen, aska honen inguruan, laino itxian behi asko agertu zitzaizkigun eta horietatik pare bat marruka. Handik gutxira zekorra ikusi genuen, galdu samarra, segur aski. Honek errespetua sortarazten du.

Dena den, eguraldi ona egokituz gero, *Mukarraingo* atakatik gora pistara iritsita eta zeharkatuta bidezidor hestua hartu eta berehala *Artzangaztelu* (976 m) gainera iritsiko gara.

Eta handik ertzaren ingurutik doan bide-arrastoari jarraituz, *Belartzinketa* paretik *Larrezabaletatik* igaro den pistara aldera hartuko dugu eta beste aldera eginez *Ansolitzxiki* aldean dagoen pistari jarraituta *Aritzko gaina* (1040 m) parera ailegatuko gara, lehenbiziko haize-errotak dauden tokian bertan. Gero aukeran, gainerako haize erroten azpi aldetik jarrai daiteke edo pistara berriro joan eta *Ansolitzauendi* parajeen *Kornietako esietatik* barrena *Kornietara* (1062 m). Hemen atsedean txiki bat har genezake inguru guztia behatuz; ederra ikusmira.



Kornietatik *Larrezabaleta* zehartzen duen pistaren ondoren *Ansolitzxiki* eta *Ansolitzandiaren* arteko zokoa eta atzean *Malloak*.

Ondoren haize-erroten presentzia eta beraiekin batera zabaltzen duten hotsa utziz, beherantz eginen dugu eta honetarako ere bi aukera ditugu. Batak, beheara egin ondoren, ezker aldera eginen dugu pistari jarraituz Asketara iritsi arte.

Hemen pasabide kanadiarra topatuko dugu eta hemendik asfaltatuko pistatik beherantz eginen dugu eskuin aldera hartuz, pistatik erabat jarraituz *Uztarleku* bitarte edo hemendik aurreraxeago *Pilotasoro* zeharkatu eta aurrean dagoen *Basakabira* iritsi arte.



Kaxeta ere deitzen zaion Basakabi hotela zena. Hau egun, Gorritzaran auzoko Sanpedrotako egunean besterik ez da zabaltzen.

Besteak, mugarren bidetik egiten du beheara kilometro batez *Artxulora* iritsi arte. Gero beherantz jarraituz beste bostehun bat metrora *Balentabaso* deritzon parajera eta han ezker aldean pistarekin bat eginen dugu.

Hemen, *Kaxetan*, bidegurutze honetan garbi ikusiko ditugu Doneztebe aldera, Goizuetara edo Leitzara doazen errepideak eta bitarteko kilometro kopuruak.

Errepidea gurutzatuta, nahiz eta beste aukera ezberdinak izan, nik pistari jarraitzea aholkatzen du, beste bideren bat hartuz gero, zenbait tokitan ixter handi edota ainar ugariarekin aurkitu bait gaitezke.

Horregatik *Tardoko bordatik* aurrera eta *Loiategi*-ren ezker aldetik, ederki txikituta dagoen pistari jarraituz gorantz egin behar dugu.

Goi aldean jada, lehenbiziko zelai gunean, *Auzaru* parajearen eskuin alderako pista zabal bat aurkitu-



ko dugu, behetik hasita hogeita bost bat minutura. Honek, metro gutxira eskuin aldera egiten du berriro ere eta aurrera jarraitu behar da, gorantz, baina lasai doan bidetik pinudi batean sartu arte. Pinudia gurutzatu eta hau igarota ehiztarien postu hondatuarekin topo eginen du.




Idoietako putzue.

Pixkana eta aurrera joanez, gero eginen dugun *Petriketa gainaren* azpi aldetik *Idoietako putzura* iritsiko gara. Bertan, Idoietako putzuan, dagokion garaian ondoren igel edo zapo bihurtuko diren arrautzetatik sortuko diren txalburu ugari ikus daitezke bertan, metamorfosiaren prozesua, alegia.

Handik gutxira, eskuin aldera hartuz, belatso gozagarria igarota, *Eguzkizko muinora* (1082 m) iritsiko gara. Gainaren atze aldean pagadia paraje malkartsuan, baina gainean hiru ikur. Batak aspaldiko buzoia bere txapan izenaz gain, altuera adiera-

ziz. Bestean 2011-11-11n jarritako harri-jasotzailearen irudiarekin eginikoa eta "Holako egurre alako ezpala" dion ikurra Guratz mendi taldekoek jarrita. Eta hirugarrena, orain dela urte gutxi istripuan hildako Andoni Arizagaren omenez, lagunek jarritako suhiltzailearen kaskoa.

Hona hemen Eguzkizko muinoan aurkituko ditugun hiru ikurrak.



Atzera berriro ere, eta minutu gutxira *Petriketa gaina* (1057 m) zapalduko dugu, han aizkolariak omenduz, talde berak jarritako irudia ikus daiteke, hau 05-05-05 datarekin. Bertatik igaro den pista zeharkatu eta Aizan deitzen dugun *Aizaran gaina* (1054 m) izanen dugu berehala.



Petriketa gainan, herriko aizkolariaren omenez.



Petriketaren magalean bisitari berrei so.

Hemendik aurrera guztia behera. Pista hartuta *Aizarango bidegurutzea* mendebalderantz hartuta pagadian sartuko gara eta "ikono" bihurtu den antena zakar baterantz hartuko dugu arboladitik ateratzera-koan, eta *Basakabitik* datorren pistaren paretik.

Han inguruan, gaur eginen dugun azken gaina zapalduko dugu; *Baztarla* izenarekin ezagutzen duguna, baina berezko izena *Baztarrola* (936 m) duena.



Baztarrola (Baztarla) mendi gaineko hasierako buzonetik geratzen dena.



Baztarla inguruko "antena". Dena den, lasai arren ikusten dira behor eta ardiak.



Tarteka ederki elurtuta ikusi izan ditugu paraje hauek.

Mendi honek, zoritxarrez, herritik parez-pare eta begi-bista nabarmenean egon arren, bere izena aldatu duela izugarritzko pena sortarazten dit. Gehienek "antena" mendizat ezagutzen dute, bere garaian antenatza hori jarri zutelako, eta pixkana bere izena galduz joan da. Hori etxe eta toki-izen askorekin gertatu da eta gertatuko da zoritxarrez. Beraz, ahalegina egin dezagun hainbat izen erreku-peratzen edo gal ez daitezzen. Orain burura etorri zait, gero eta gehiagotan aditzen dena; *Nora zoaz, haizerrotetara? Kornieta* edo *Haritzera* esan beharrean,.... Hau marka!

Beno, bidaia edo ibilbidea jarraituko dugu. Herri aldera ekitekotan aukera ezberdinak daude, eta nahi izanez gero, luzatu daiteke ibilbidea, baina gaurkoz nahikoa dela pentsatu dut, eta horrela beste baterako bestelako aukerak utziko ditugu. *Pagozelaieta* parajera jaitsiz gero, *Baztarlaren* azpi aldetik buelta emanaz, harri koxkorrez beteriko bidetik jarraituko dugu, *Pagomiñatik Otemotzera* eta *Orbeletako* kaskoa igaro ondoren *Almoarruandi* parajera eta handik *Portoloborda* baserriaren gainekaldean jarriko gara.

Hemendik *Gañegia* parajera zeharkatuz, ekialderantz, edo beste modu batera esanda, *Maritako kaskora* eta *Barrenea* goi aldetik pasata, zeharkako *bidea hartuz Madarietako parajeant sartuko gara*, *Marielbor* zatian herriko *Amazabal* auzotik barrena herrira itzuliko gara. Norbaitek nahiko balu, *Iruñaga* eta *Iruñagaxiki* igarota, *Plazaola trenbide* har dezake *Gorritaran* aldera eta 2,5 kilometrora herriko plazaren gainaldean dagoen ataka berdera iritsiko litzake, eta hemendik behera *Itturi-zaharretatik* abiapuntua izan den plazara.

Ibilbidearen ordutegia

- Herriko plaza-Santa Krutz: 25´
- Putzenborda 35´
- Mukarraingo ataka: 47´
- Artzangaztelu: 52´
- Aritzko gaina: 1h 11´
- Kornieta: 1h 40´
- Artxulo: 1h. 52´
- Balentabaso: 2h
- Basakabi: 2h 18´
- Auzaruko bidegurutzua: 2h 45´
- Idoietako putzua: 3h 05´
- Eguzkizko muinoa: 3h 10´
- Petriketa: 3h 20´
- Aizan: 3h 23´
- Baztarrola (Baztarla): 3h 43´
- Almoarruandi: 4h 14´
- Maritako kaskoa: 4h 30´
- Herriko plaza: 4h 50´

Desnibela: +/- ↑ 1100m (Gaina guztiak eginez gero)

Distantsia: +/- 19 km

Zazpi gainak

- Artzangaztelu (976 m)
- Aritzko gaina (1040 m)
- Kornieta (1062 m)
- Eguzkizko muinoa (1082 m)
- Petriketa (1057 m)
- Aizaran (Aizan) (1054 m)
- Baztarrola (Bazatarla) (936 m)



Aipatu diren toki-izenak, parajeak, errekek, baserriak...

Herriko plaza- Santa Krutz - Ormarteko estarta - Plazaolako trenbidea – Azerimalkor – Zortzikoren-borda Sorogain - Giltzur-itturria - Jaundegiko borda - Billartako borda - Zubillaga parajea - Putzenborda - Oialde parajea – Akutio – Anikote zelaia - Mukarraingo ataka – Erasote - Aritz mendilerroa - Patzikuren belasoroa – Larrezabaleta - Artzangaztelu – Belartzinketa – Ansolitzxiki - Aritzko gaina – Ansolitzzaundi - Kornietako esieta – Kornieta – Asketa – Artxulo - Balentabaso - Uztarleku – Pilotasoro - Basakabi (Kaxeta) - Tardoko borda – Loiategi - Auzaru - Idoietako putzua - Eguzkizko muinoa - Petriketa – Aizaran (Aizan) - Aizarango bidegurutzea – Baztarrola (Baztarla) - Pagozelaieta parajea - Pagomiña – Otemotza - Orbeletako kaskoa – Almoarruandi - Portolonborda baserria - Gañegia parajea - Maritako kaskoa - Barrenea baserria - Madarietako parajea – Marielbor - Amazabal auzoa - Iruñaga - Iruñagatxiki - Plazaola trenbidea - Gorritzaran - Itturi-zaharra.

+Idatzian agertzen diren izen guztiak aipatutako mapan agertzen diren berak dira.

MIKEL ILLARREGI

BAZEN BEHIN, BAGARA ORAIN, erabakitzen duguna IZANEN GARA...

Bazen behin, uste nahasi eta ezberdinak izan arren, bazen behin, aspaldian sortu eta garatzen zihoan Herri bat. Ez zen Herri handia, ez zen besteak baino herri garrantzitsuagoa, ez zen, azken finean, besteak baino gehiago zen Herri bat. Bazen bere historia garatzen ari zen Herri bat. Bazen, bere hizkuntza zuen Herria. Beste Herri bat zen, gure Herria zen. Urteak aurrera gainerako beste herriek bezala, pasadizo asko eta ugari gertatzen zitzaizkion. Herri asko eta oso ezberdinekin lehiatu behar izan zuen Herria, beste askorekin elkarrekin bizi behar izan zuen Herria bazen.. Guda ezberdinak ere jasan zituen Herria bazen. Pozak eta tristurak, penak eta garaipenak lortu zituen Herria bazen. Baina behin baino gehiagotan, Herri horretarako biztanlek iraganaz bizitzea baino oraina eta geroa bizi izan nahi zuen Herria bazen. Eta ; zer gara, nora goazen,... galdezka hasi zen Herria bazen. Eta oraina abiapuntua hartuta, zer izan nahi dugun, ze Herri mota osatu nahi dugun pentsatzen hasi zen.

Hau horrela aurretik ahalegin asko eta handiak egin ondoren, 2014an Iruñetik Durangora giza-kate bat sortzea edota osatzea bururatu zitzaion. Pentsatu eta ederki bete ere bai. Eta gero hainbat plaza eta toki handi eta txikiak asmo horren erakustoki bete zituen. Jendea animoz indartzen hasia zen. Eta herri handi horren herritxo bakoitzak bere auzoei, bere biztanleei Gerora begira zer nahi zuten galdetzea pentsatu zuten. Nafarroan hasi zen esperientzia. Gero Hego Euskal Herrian barrena zabalduz joanez, gure zonaldera iritsi zen; Lekunberri, Leitzaldeko Areso, Arano, Goizueta eta Leitzza herriez gain, Larraun, Araitz, Betelu aldeko herritara iritsi zen. Honi *Mendialdea* deitu zioten. Eta Euskal Herriko *Gure Esku Dago* dinamikak *Hemen Gaude* izena



hartu zuen hemen. Hala ere, Sakanan eta Bortzirietako herritan ere hau guztia bideratzen animatu ziren; *“Nafarroako uholde berria”* deitu zioten.

Nahi izatea soilik ez da aski eta hori guztia antolatu behar izan da. Noiz galdetu pentsatu, zer galdetu erabaki, ... eta horretarako talde, eragile eta ahal den jende gehienarekin hitz egin behar izaten da, eztabaidatu behar da, landu behar da,...

Eta orain gure hitzetara igarota, hori izan da, eman dugun bidea, alegia, lorpenik handiena, gure ustetan. Lortu dugu *“Auzolan”* erraldoi bat antolatzea. Lortu da, eztabaidaguneak sortzea taldekako azalpenen ondoren. Lortu da askoren artean zer galdetu eztabaidatzea. Hala ere, hemen ohar moduan esan beharra da, hemen Leitzan erabakitakoa ez dela hitzez-hitz aurrera atera Mendialdeko bestelako herrietako ordezkariekin eztabaidatzerakoan, eta guk pentsatzen ez genuen moduan bi galdera atera dira, gure planteamendua- ren orde. Baina askotan hitz egiteak, eztabaidatzeak, hori dakar berarekin batera, norberak nahi duen eran ez ateratzea. Baina jakin ezazue, eztabaidaren ondorioz ateratzen dena, gehiengo batek ego-kiagoa dela pentsatzen duelako izaten dela, gehienetan.

Beno lehengoarekin jarraituz, somatu dugu, jende asko izan dela motibatu, ilusionatu dena. Honetarako, bilerak eta batzarrez gain, sinaduren-bilketa, kamiseten salmenta, idatziak, mahai-ingurua, bertso-afaria, zozketak, bilkurak, argazki-erraldoia, bideo-klipak, buzoneoak, atxikipenen grabazioak, irrati saioak, komunikabidetan agerraldiak eta idatziak, iragarkien kartel handia, bozka eguneko egitarau guztia; diana, dantzariak, aizkolariak, umeen jokoak, pilota partidak, bertsolariak, kantaria, pintxoak, ... Askok eta asko izan da egin dena, eta iritsi ez garela-ko, egin gabe utzi ditugun ideiak ere izan dira, noski.

EMAITZAK:

Municipalitatea	Votoak	%
Astoria	210	44,21
Baki	420	56,79
Elizate	179	54,81
Spintzi	210	54,29
Leizua	340	53,27
Guztira	2059	43,99
Mendiak	1400	47,38
Altoa	270	54,00
Arantzaz	48	54,90
Kortezubi	20	50,00
Leizua	280	57,69
Leizua	270	54,00
Leizua	340	54,29
Leizua	210	54,29
Leizua	210	54,29
Guztira - TOTAL	7.781	38,73

Baina honetan, dudarik gabe, botatzera hurbildu direnez gain, honetan guztian antolatzen eta egitasmo guztia gauzatzen laguntza eman dutenak dira aipagarriak eta eskertzeko modukoak; mahaian egon direnak, aurretiko bozketan parte hartu dutenak,... eta aurreko zerrenda guztia gauzatzeko laguntza eman dutenak.

Era honetan guztion artean urrutiko diruditen helburuak lortu daitezkeela erakutsi dugu. Lehen aipatu genuen moduan "auzolana" da biderik eraginkorrena helburuak lortzeko, horretan parte hartuz gero, denak sentituko baikara helburuaren partaide. Barkatu aipatu gabe, utzi baldin badugu norbait edota zerbait, baina guztiei, modu batean edo bestean lagundu duzenoi, eta bozka ematera etorri zaretenei ere bai: **ESKERRIK ASKO!!!**

Bazen behin,... -esanez hasi dugu idatzia-, eta hau gehituko diogu: **Geroa erabakitzeke, orain, gai bagarela erakutsi dugu. Etorkizuna GURE ESKU DAGO.**

LEITZEKO HEMEN GAUDE (GURE ESKU DAGO) Batzordea

EMAITZAK

Partehartzea: **Leizua 1011 - 40%**
Mendiak 2505 - 40%

Nahi al duzu Nafarroako herritarrok gure etorkizun politikoa modu askean erabakitzea?

	BAI	EZ
Leizua	980 - %97	9 - %0,9
Mendiak	2422 - %96	18 - %0,7

Barezkora bada, nahi al duzu Euskal Herri libre bateko herritarra izan?

	BAI	EZ
Leizua	922 - 91%	16 - %1,6
Mendiak	2263 - 90%	66 - %2,6

Argazki bilduma:

(Oharra: Parte hartu duzuen guztiek argazki bana merezi duzue, baina,...)



Aurretik dator guztia; autobusak bete,



eta Iruñea eta Durango lotu.



Aipatu gabe ezin utzi bidea beste askorekin batera egin dugula, aresoarrek kasu.



Eta goizutarrek ere bai, noski.



Kaleak eta plazak bete ditugu.



Azken finean, erabakitzeko gogoaz zuen guztiaren batera.



Baina hona ere iritsi da eguna.



Goiztiar batzuk.



Goiz eta lanera berehala.



Modu askotako parte-hartzeak gauzatu ziren; txistulariak...



dantzariak, aizkolariak, pilotariak, ... bertsotan eta kantari.



Adin eta era ezberdineko herritarrek parte hartu zuten.



Tartean ezagunak (Rekondo aizkolaria) eta arruntak gehienak.



Batzuetan ilara luzeak sortu ziren.



Eguzki berotan itzala sortzen saiatu ginen.



Herriko adintsuenak bozka ematen, Mikaela eta Astiz.



Hau 1000. bozka.



Bozka-lekuan boluntarioak lanean.



Ederra eguna.



Balorapen baikorra; horixe baietz.



Helburua.

Ateak irekiz, eskua luzatuz



Gure eskualdeko Oinarrizko Gizarte ZerbitzuaK 1990. urtean zabaldu zituen ateak. Hasiera hartan bi langilek herriko behar haiek jaso eta erantzuteko lan egiten zuten. Eguneroko lanaren ondorioz, zerbitzu, programa eta baliabide gehiago gehitzen joan dira pixkanaka pixkanaka. 27 urteko ibilbidearen poderioz, hurrengo lerroetan irakur litekeen moduan, egungo argazkia oso oparoa da.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua zerbitzu publikoa, dohako eta komunitarioa da. Helburu nagusia Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko biztanleen bizi kalitatea hobetzea da, prebentzio bidez lan eginez eta pertsonen arazoak konpontzen laguntzeko neurriak orientatuz.

- | | |
|---|--|
| <p>1 Harrera eta gizarte orientazioa</p> <p>Gizarte zerbitzuen sarera sartzeko atea da, herritar guztiei zuzendutakoa. Bertan gizarte zerbitzuen barneko baliabideei buruzko informazioa jaso eta eskaerak egin daitezke.</p> | <p>Zerbitzuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Prestazio ezberdinen tramitazioa: familia ugariak, eszedentziak, jangela bekak, eskola materialeko bekak, gizarteratze errenta, larrialdietako diru laguntzak, laguntza bereziak... |
| <p>2 Familia eta adin txikikoen programa</p> <p>Adin txikikoen, nerabeen, gazteen eta familien beharrak asetzea helburu duen programa.</p> | <p>Zerbitzuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Familiekin, haurrekin eta gazteekin sor daitezkeen galdera, behar, zalantza eta zailtasunetan laguntza. • Banantze prozesuetan informazioa eta orientazioa. |
| <p>3 Autonomia pertsonala sustatu eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta programa</p> <p>Adinagatik edo osasun arazoengatik menpekotasun egoeran daudenei sostengua emateko programa.</p> | <p>Zerbitzuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Menpekotasun balorazio eskaeren tramitazioa. • Etxez etxeko laguntza zerbitzua. • Etxean zainduta izateko diru laguntzak. • Larrialdietako telefono zerbitzua. • Etxetik kanpoko baliabideen inguruko informazioa. • Ortopedia zerbitzua mailegua. |
| <p>4 Gizarteratze programa</p> <p>Gizarteratze eta laneratze prozesuetan zailtasunak dituztenei laguntzea helburu duen programa (denbora luzez langabezian daudenak, zailtasun ekonomiko larriak dituztenak...)</p> | <p>Zerbitzuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Babesturiko Gizarte lanaren kudeaketa. • Lan komunitarioen kudeaketa. • Etorkinei harrera eta erregulazio prozesua bideratzea. • Elikagai bankua. |
| <p>5 Prebentzio programa</p> <p>Komunitatean jarrera era ekintza prebentibo nahiz osasuntsuak sustatzen dituen programa</p> | <p>Lan ildoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aisialdia: Topaketak, haur txokoa eta tailerrak, Oialde Txoko eta Goxali gazte txokoak. • Tailer eta sentsibilizazio kanpainak: sexualitatea, drogak, sare sozialak... |
| <p>6 Emakumeen eta gizonen berdintasun programa</p> <p>Parekidetasunaren bidean aurreratzea helburu duen programa.</p> | <p>Lan ildoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen aurkako indarkeria • Kontziliazioa eta arduren banaketa parekidea. • Emakumeen ahalduntzea. • Genero ikuspegiaren garapena |

**Badakizue non gauden!
Hartu hitzordua**

☎ 948 510 840
✉ ssbleitza@lagagizartezerbitzua.org

📘 LAGA Gizarte Zerbitzua
🐦 @LAGA_OGZerbitzu



Gora San Tiburtziol

LEITZAKIROLAK

☎ 948 610 976 · Elbarren, 36
www.leitzakirolak.com

❁ **SAGASTI** ❁
JATETXEA



GOSARIAK · KAXUELA · OGITARTEKOAK
BAZKARIAK · AFARIAK

ONGI IGARO PESTAK!

☎ 948 610 637 · Elbarren, 98 · LEITZA




Oinetakoak eta Osagarriak
Bi Pauso

PESTA ONAK PASA ETA ERRESPEZUZ JOKATU

Elbarren 67, Leitza ☎ 948 513 611 · 680 187 853

haur arropak eta
oinetakoak
ondo pasatzen direnak!
ESKERRIK ASKO!



KULUNKA 2014@gmail.com
TEL. 948 513 620
Uharteko Gotzaia Kalea 1, Behaia 4
LEITZA · 31990



Catalana Occidente Seguros

ONGI PASA PESTAK!

Elbarren, 67
☎ 948 610 051



Garbi
drogeria - lurrindegia

ONGI PASA PESTAK!

☎ 948 510 173 · LEITZA



Amaia
arraindegia
eguneko arraia

ONGI PASA PESTAK!

☎ 948 510 590 · Uharteko Gotzaia · LEITZA

BIOK JANTZIAK

Gizonezko, emakume eta umeentzako jantziak



☎ 948 510 460 / 948 510 477 · Elbarren, 32 · LEITZA

Jai zoriotsuak opa dizkizue



OGI BERRI
Ogi eta opil artisaunak

948 610 974



Ane Egizabal Llata
fisioterapeuta
CPS-C01824-1/09NA

- Erreabilitazioa
- Osteopatia
- Kirol eta zirkulazio masaia
- Erditze aurreko / ondorengo tratamendua



☎ 948 510 730 · Uharteko Gotzaia, 8 / 3.C · LEITZA

Herrian erosi, lanpostuak mantendu eta sortu, Leitza bizirik! KXX



MUSUNZAR OSTATUA

JATETKETA · LOGELAK

Aurtengo pestetan itxita

Ongi pasa
pestak!



© 948 510 607 / 948 510 475 · Elbarren, 14 · LEITZA

ATSEDEN-GOZO
PINTXOAK, BOKATAK, PIZZAK...
BERTAN JATEKO eta BAITA ERAMATEKO ERE.
www.facebook.com/atseденgozo
Landabekoa 1zk kalea · LEITZA · 948 610 572

ETXE TRESNAK S.L.
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · ELEKTROGAILUAK
ONGI PASA PESTAK!
Tel./Faxa: 948 510 208 · Mugikorra: 650 928 838
etxetresnak@gmail.com · Elbarren, 45 · LEITZA

URKIOLA
IDI HARAGITAN ETA HEMENGO
ZEKORRETAN ESPEZIALITATEA
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!
© 948 510 747 / 948 510 467 · LEITZA

KIDE AHOLKULARITZA

kontabilitatea · autonomoak ·
enpresen sorrerak · zergak ·
autoen transferentzia · errenta aitortpenak
aholkularitza juridikoa · nominak
kontratuak...

ONGI PASA PESTAK!
Leitza: Landa ind. Suizpi 3 · © 948 510 990 · F: 948 510 429
Donostia: Urbietak, 60 / 1. ezk. · © 943 420 348 · F: 943 441 838

LEITZA GARAJEA Multimarka tailerra

STIHL AGENTZIA · NEKAZARI TAILERRA
SALEROSKETA
ia kriston pestak pasatzen ditugun!
© 948 510 466 / 948 510 404
Landa industrialdea · LEITZA

M^a Isabel Larraya

ONGI PASA PESTAK!
© 948 510 599 · Elbarren, 95 · LEITZA

GURIA KARROZERIAK TXAPA · PINTURA

P. KALDERON
Txapa: neurgailu elektronikoa ordenadorez, diagnosiak, bankaden neurria.
Pintura: labe kabina. Denetariko pinturak (ekolójikoak, uretara...)
Autogarbiketak: garbitzeko ur beroko makina, aspiragailua. Irekita egun guztia.
Berraldaketak: denetariko akzesorioak eta berreldaketak (lantalak, pilotoak, kateak...).

© 948 510 255 · Landa industrialdea · LEITZA

Ariztela
DEKORAZIO
TAILERRA
Kortinak
Telak, barrak, mekanismoak... eta kortinak egiteko pieza guztiak salgai
Ohe eta etxeko jantziak
Euskal jantziak
T. 948 610 611 / 666 458 791 · Landa industrialdea / Suizpi 3 · LEITZA
www.ariztela.tk · ariztela2010@gmail.com

**ZORTZIKO
LABETXEA**
KAFETEGI GOZOTEGI
ETA OKINDEGIA
• Ogi egin berria
• Prentsa, gosari goxo goxoa (laranja zuku naturala, croissant eta kafea)
• Pastak, pastelak, tartak (enkarguak egun batetik bestera ekartzen dira)
• Zapora guztietako kukurutxuzko izozkiak
© 948 510 720 · Elbarren 20 · LEITZA

M. PLAZA · E. ARRUEPA

GORA SAN TIBURTZIO!

© 948 510 032 · Elbarren, 36 · LEITZA

CARNICERIA
Arzallus
HARATEGIA

Chistorra y productos artesanos de elaboración propia

Ongi pasa pestak! © 948 510 377 · Elbarren, 37 · LEITZA
© 943 683 042 · Etxe Aurrea · BERASTEGI

G@ZTETXO ZIBERGUNEA



INTERNETA
JOKOAK-SAREAN / JUEGOS EN RED
ESKANERRA
INPRESORA

© 948 510 741 · Elbarren, 16 · LEITZA



Perurena
HARATEGIA · CARNICERÍA
www.perurena.es
T. 948 510 164 · Elbarren 51 LEITZA

Jai zoriontsuak opa dizkizue!

Belarra
BELAR DENDA

© 948 510 192 · Leitza



PERITZA
TABERNA

Pesta onak pasa
eta txintxo ibili

© 948 610 848
Elbarren, 23 · LEITZA



© 948 510 197
Elbarren, 67 · LEITZA

Olaia Bazar
LOREAK
PAPERTEGIA
JOSTAILUAK
HERRAMINTAK
ETXEKO TRESNAK
JANTZIAK
GARBKETARAKO
PRODUKTUAK

ONGI PASA PESTAK!

© 948 510 437 · Landa Behekoa, 3 · LEITZA



KAPRITXO

- Opariak
- Bitxiak
- Neska eta mutilen arropak

ONGI PASA FESTAK!

© 948 510 748
Elbarren, 19 · Leitza

M AIMUR

PRENTSA · OPARIAK · TESTU LIBURUAK
PLASTIFIKATZEAK · ENKUADERNATZEAK
INPRETA LANAK · FOTOKOPIAK

ONGI PASA PESTAK

Tel./Faxa: 948 510 146 · Herriko Plaza · LEITZA
maimurleitza@gmail.com

Allianz 

ELKARLAN aseguroak

PESTA ONAK PASA!

Elgoien, 53 • LEITZA
Tel./Faxa: 948 510 490
jaione.alduntzin@allianzmed.es

- Autoak, etxeak, komertzioak, R.C. bizi eta baja aseguroak
- Pentsio planak
- Aurrezteko planak
- Kotxe transferentziak

Eskatu aurrekontu irabaki konpromisorik gabe!

Bixigarri Leitza
landareak
ardoak
kontserbak
fruituak



677345496
628520682

bixigarri@hotmail.com

OIHANA ERBITI

ONGI PASA PESTAK!

© 948 610 636 · Lizarraga, 7 · LEITZA

JAURENA ESTANKOA

© 948 510 290

Elbarren kalea, 21 · 37880 LEITZA (Nafarroa)

BITXILORE LOREDENDA

- * LORE NATURALA
- * LORE LEHORRAK
- * EZKONTZETAKO LOREAK
- * KOROKIAK...

Ongi pasa pestak!

© 948 510 654 · Elbarren, 59 · LEITZA

edr'igunea
Ainhoa Azpiroz
Estilista

Lasera • Solariuma • Depilazioak • Makillajea
Aurrepeko tratamenduak • Gorputzeko tratamenduak
Opori baleak • Begien edertzea

© 948 510 273 · Elbarren, 67 beheka · LEITZA · edrgunea@yahoo.es

MARCIA Z. CAMPOS MENDOZA

pesta onak opa dizkizue!

© 948 510 998 · Elbarren, 52 · LEITZA

Tel/Fax: 948 510055
Mail: f.hernandorena@yahoo.es

Burdindegia/Ferreteria
HERNANDORENA
c/ Elbarren, 21 31880 LEITZA (NAFARROA)



zurgin lan guziak

ATEAK · ZUREZKO LEIHOAK · LEIHO MISTOAK
TARIMAK · SUKALDEAK · ARMAIRU ENPOTRATUAK

Ongi pasa pestak!

© 669 70 79 16 · Goiko Errota · LEITZA

ZE GOXO!

FRUTAK ETA BARAZKIAK



Jai zoriontsuak denoi!

© 948 610 612



ENGLISH ACADEMY
TO LEARN. TO LAUGH. TO ENJOY!

TelFN 680273544

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa · saneamendua · gasa
Tfnoa: 948 510 086 · 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

Ongi pasa pestak!

Astitz
Liburudenda

948510262: Prentsa, liburuak, eskola gaiak
www.astizliburudenda@hotmail.com

GOXOGUNE GOXOKI DENDA

ONGI PASA PESTAK!

AMAZABAL, 37 © 661 543 953

Lopenea

LANDA OSTALA
HOSTAL RURAL
.....
HABITACIONES Y
APARTAMENTOS

Elbarren, 47 © 688 64 08 34 - 606 27 35 34



Herrian erosi, lanpostuak mantendu eta sortu, Leitza bizirik! KXXI

miara
Arakindegia

Makilaje-saioak ere egiten dira, aurrez hitzartuta
pesta onak pasa!

Kale Nagusia, 1 Behea
20492 Berastegi tel. 943 683 697

 **LEIMEN**

ERA GUZTIETAKO ELEKTRIZITATE LANAK

JAI ZORIONTSUAK DENOI!

LEITZA ☎ 628 725 396 (Argoitz)
MENDILLORRI ☎ 628 725 397 (David)

 **ARAKINDEGIA**
jatetxea

Menua · Karta
garaien garaiko otorduak
ONGI PASA PESTAKII

☎ 948 510 052 / Faxe: 948 510 633
Elbarren, 42 · LEITZA 

 **ZUBI**

Polígono Usabal, 14 B
Tolosa (Gipuzkoa)
☎ 678 984 730
igorzubillaga@hotmail.com

FATXADAK ETA
BARNE DEKORAZIOAK

 **landá-berri**

OBISPO HUARTE, 3
☎ 948 610 768

GARAGARDOTEGIA

 **FONTANERÍA**
DANI
ITURGINTZA

Arakindegia, 3. Oinarri, 3. B. Berastegi
☎ 672 18 31 99
iturgintzadani@gmail.com
LEITZA

ONGI PASA PESTAK!

GURATZ-MENDI
ELKARTEA

ongi pasa pestak! 

Landa Behekoa, 4 · LEITZA

 **ULI-ZAR** 
ELKARTEA, S.L.

iturgintza · kalefazioa · gasa-gasoila
komuneko osagarriak · altzariak eta manparak

☎ 647 525 516 / 689 701 557
Bide-Ondo etxea · ARESO · Elgoien, 10 bajua **LEITZA**

 **LEITZA**
MANDRILADORA 

ongi pasa pestak!

☎ 948 510 600 / 948 510 601 · Fax: 948 510 602 Eluserder industrialdea · LEITZA

 **AISLAN, S.L.**

AISLAN-LEITZA S.L.
poliuretanozko babes eta injekziozko isolaketa

☎ 618 915 943
Santa Luzia pas., 4 B behea · Buztintxuri · IRUÑA

Leitzako gasolindegia

RAFAEL MUGICAREN ALARGUNA

☎ 948 510 057

EROSLE supermerkatua

Gora San Tiburtzioak!



☎ 948 510 007 / 948 610 657 · LEITZA



ASTIZ ANAIAK ZURGINDEGIA

era guztietako egur lanak,
ateak, leihoak, tarima,
armairuak eta kristaldegia

Ongi pasa bestak!

☎ 948 610 606 / 948 510 285



EGUZKI ilepaindegia

ASUN ETA LIDIA

ongi pasa pestak!

☎ 948 610 649 · Elbarren, 34 / 1 A · LEITZA

MAPFRE LEITZA

Gerardo Arrupea Plaza

ongi pasa pestak!

☎ 948 510 499 · garrupe@mapfre.com



BEATRIZENEA taberna · jatetxea

menua · otartekoak · kaxuelitak · pintxoak

PESTA ONAK IGARO!

☎ 948 510 991 · Mikel Deuna, 2 · LEITZA

MENDIGORRI ELKARTEA

pesta onak igaro!

Patxi Arrazola · Leitza

OLIVEIRA - VICENTE ERAIKUNTZA

ONGI PASA SAN TIBURTZIOAK!

☎ 629 418 431 / 606 307 810
Amazabal, 17 3. B · LEITZA

DAIKE

obrak · etxebizitzak · erreformak · aurrekontuak · proiektuak
☎ 688 911 229 / daike@hotmail.com

pesta onak izan

Urto karrozeria



TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK
JESUS AZURMENDI JAUREGI

ONGI PASA
SAN TIBURTZIOAK!

☎ 943 683 499 / 948 610 664
Kamineros etxea · BERASTEGI

Pintura lanak
erokorrean



© 609 873 178 · LEITZA




Done Mikel, 1
© 948 610 909



JEIKI ABESBATZA
© 606 393 842 · jeiki.leitza@gmail.com
Gora Santiburtzloak

ONGI PASA PESTAKI



© 948 510 007 · Elbarren, 71 · LEITZA

Txoko taberna
pintxoak · otartekoak · kaxuelak
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

garaiekin



proiektuak
neurketak
inspektzioak
zertifikatuak
dormentatuak
obren kontrola
ahalgarritza
607204485
garaiekin@hotmail.com

ORAIN ELKARTEA
jai zoriontsuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei
LEITZA

Gaztañaga taberna
OTARTEKOAK · PINTXO BEROAK · KAXUELAK
© 948 610 708
ongi pasa pestak!



TXARAGORRI
ITURGINTZA
FONTANERIA
Ongi pasa bestak!
© 649 853 440 · Elbarren, 56 (Martikonea) · LEITZA

LEITZALARREA S.L.
aroztegi metalikoa
© 948 510 598 / 669 368 991
Landa industrialdea, 20 · LEITZA

ARIZTIMUÑO ANAIK ERAIKUNTZAK

Lan orokorrak eta berrikuntzak

ONGI PASA PESTAK!

☎ 948 510 202 / 948 510 374 · LEITZA

Plaza aseguruak

MOTA GUZTIETAKO ASEGURUAK

JAVIER RAZKIN CALDERON

Pesta onak pasa ditzazuela!

☎ 948 510 338 · Uharte Gotzaia, 8 · LEITZA

**Bi
Lagun**



bilagunleitza@hotmail.es

Tel./Fax: 948 610 985 · Iñurrista Industrialdea / P2 · LEITZA

Arantxa
ILEAPAINDEGIA

GORA
SAN TIBURTZIOAK!



☎ 948 610 931 · Huarte Gotzaina, 8

GORRITZ
ERAIKUNTZAK · ESKABAZIOAK

**SANTIBURTZIO
ONAK PASA!!!**

☎ 948 510 140 · Fax: 948 510 996 · LEITZA (NAFARROA)

Aniote

**MUGI ZAITEZ
GUREKIN!**

GOZATU PESTAZI!

AMAZABAL, 0 · © 948 510 719 · kirola@leitza.net

9
4
8
3
9
7
0
3
5



6
0
8
0
9
1
2
8
1

ORTIZ

FERRETERIA - PENTSUAK

**Pesta onak
pasa!**

Tel. 948 513 600
Landa industrialdea, 13
31880 LEITZA (Nafarroa)

Kornieta elkartea

**Ongi pasa
San Tiburtzioak!**

LEITZA

Asador Jolabaxo

Galartza III

31879 BARAIBAR (Nafarroa)



Pesta zoriontsuak opa dizkizue!

Tel. 948 504 456 / 948 504 387
asador@galartza.com
www.asador.galartza.com

Lorea ileapaindegia

☎ 948 610 907
☎ 699 115 986

Inazioabarun etxea
Eibarren 98, Leitza

TALLERES **Ireber** S.L. **ONGI PASA PESTAK!**

**MANTENIMENDU PREDIKTIBOA
INDUSTRI MAKINERIAREN MONTATZE ETA KONPONKETA**

Landa Industrialdea - Pab. 9B - 10B Leitza
Tel. 948 510 842 - 639 134 464 - Fax. 948 510 843

l e i
t z a
r r a
Leitzarra taberna

© 948 510 352 · Leitza



PESTA ONAK PASA!

BULDAIN inmobiliaria

FESTA EDER HAUTAN
ZUEN NAHIAK BETE
DITZAZUEN OPA DIZUET

<http://buldain.blogspot.com>
© 948 510 534 / 649 476 615 · LEITZA



LAETXEA

**PESTAK
ONGI
PASA!**

ZURGIN LANAK

Atoak
Armairu enpotratuak
Tarimak eta parket mota guztiak

LANDAGOIKOA 15, 1. EZK. 627 015 754
31880 Leitza



Leizako Udalak

PESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

leitzarrei, bisitariei eta gurekin
egon ezin ahal izanen duzuen guztiei.

Festetako gastuen
zerrenda
2017eko
aurrekontua

PLAZAKO MUSIKA	15.265 €
TXIMELETA	2.800,00 €
LAIOTZ	2.100,00 €
NIÑA COYOTE CHICO TORNADO	1.694 €
LA MALA PECORA	605 €
OIHAN VEGA	2.541,00 €
TXAMUKOS	1.600,00 €
ORKESTA GIZONA	825,00 €
ROCK KALEAN	2.300,00 €
ORTZADAR	800,00 €
KIROLAK	3.600,00 €
HERRI KIROLAK	3.600,00 €
UMEENTZAT	4.410,00 €
PUZGARRIAK	1.760,00 €
TXOROTXARANGA	1.650,00 €
SUZKO ZEZENA	1.000,00 €
BESTELAKO PROGRAMAZIOA	16.603,00 €
BERTSOLARIAK	1.373,00 €
DIRT JUMP	2.530,00 €
PILOTA BERTSOKATUA	900,00 €
GAITEROAK	900,00
TXISTULARIK	900,00 €
INCANSABLES	10.000,00 €
ZEZENAK	16.434,00 €
ARKITEKTUAREN ZIURTAGIRIA	290,00 €
ASIER ARRIZABALAGA	6.050,00 €
GIZARTE SEGURANTZA	320,00 €
HONDARRA BILTZEKO MAKINA	470,00 €
HONDARRA ETA PORTEA	854,00 €
INGENIERIAREN ZIURTAGIRIA	500,00 €
MAPFRE (ERANTZUNKIZUN ZIBILA)	1.600,00 €
MAPFRE (ISTRIPUAK ETA BALIEZINTASUNA)	500,00 €
MEDIKUA ETA ANBULANTZIA	5.500,00 €
UKULLUEN ALOKAIRUA	350,00 €
OTORDUAK ETA OSTATUAK	8.700,00 €
DANTZARI TTIKIK	400,00 €
HERRI APARIE	4.000,00 €
TXAKOLIA	500,00 €
JUBILATUEN BAZKARIA	1.500,00 €
OTORDUAK ETA OSTATUAK	1.500,00 €
SAN TIBURTZIO EGUNEKO HAMEIKETAKOA	800,00 €
PROGRAMA ETA PUBLIZITATEA	2.150,00 €
PROGRAMA	2.000,00 €
PROGRAMA AZALAREN LEHIAKETA SARIA	150,00 €
BESTELAKOAK	12.559,00 €
ARGI INDARRAREN KONEXIOA ETA GASTUA	1.200,00 €
GARBIKETA	3.000,00 €
KOMUNEN ALOKAIRUA	600,00 €
LANGILEEN APARTEKO OTORDUAK	1.800,00 €
SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES	1.240,00 €
SOINU- EKIPOA	4.719,00 €
GUZTIRA	79.721,00 €





GEURE
EZETZA
ZEUENA
ERE BADA

ZEUEN
EZETZA
GEUREA
ERE BADA



JAIAK ERRESPETUZ BIZI